

Julene Azpeitia

Lehiaketa 2009

irminak



Lehiaketa 2009

Julene Azpeitia lehiaketa



2009. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Salla

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2009. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1463-2009

2009ko azaroa

HITZAURREA	7
<i>Mari Jose Balier Orobio-Urrutia</i> <i>Euskara eta Kultura Batzordeko presidentea</i>	
IPUINAK	
HIRUSTA SINBOLOA	11
<i>Paule Alzaga</i>	
EZKUTUKO ETXEA.....	21
<i>Leire Rodriguez Elgueta</i>	
PAPER ZURIAREN ABENTURA.....	27
<i>Markel Arbulu Dudagoitia</i>	
IKUSEZINA NAIZ	35
<i>Arnaitz Iriondo Zugazartaza</i>	
ZERGATIK EZ?.....	41
<i>Dana Alonso</i>	
2031, BALLETEKO ZAPATILAK	47
<i>Elene Landia Ormaetxea</i>	
PENTONEN LEIHOA	55
<i>Martin Gabiria Elejabarrieta</i>	
URREAK BETI EGITEN DU DIR-DIR	67
<i>Ane Aja Lopez</i>	
PAGOAREN GERIZPEAN	77
<i>Iñaki Barandika Gallastegi</i>	

OLERKIAK

ITSASOA.....	89
<i>Alba Oleaga</i>	
BEGIRADAK	93
<i>Delfina Asteinza Castillo</i>	
AKABO	97
<i>Eneko Sagardoy Mugika</i>	
BEGIEN EGIA	101
<i>Nerea Aizpurua Iglesias</i>	
HERDOILARENAK	105
<i>Jon Ander Urkiaga Egidazu</i>	

BERTSO PAPERAK

BERTSO BAT NOLA BOTA	111
<i>Iker Mendiolağarai</i>	
GAZTEAREN BIZITZA	115
<i>Igor Uruburu Martinez</i>	
ESPERANTZAREN BIDAIA	119
<i>Ander Sagardoy Mugika</i>	
KRISTAL GARDENAK	123
<i>Garazi Sarrionandia del Hierro</i>	
LUZEA DA GURE LURRA.....	127
<i>Jon Ander Urkiaga Egidazu</i>	

hitzaurrea

Aurten hogeita bost urte betetzen dira Durangoko Udalak *Julene Azpeitia Lehiaketa* antolatzea erabaki zuenetik. Udaleko kultura batzordeko kidea zen Joan Antonio Aromak egin zuen proposamena, eta batzordeak aho batez onetsi zuen. Horrexegatik, euskara eta kultura batzordeko presidentea naizen aldetik, nire eskerrona adierazi nahi diot Joan Antoniori liburu honetan bildu ditugun idazlanak berak duela 25 urte ereindako hazi emankorraren fruitu direlako.

Harrez gero, hamar urteko etenaldia tarteko (1989-1999), zeinetan Barbaro Elkarteak arduratu baitzen lehiaketa antolatzeaz, hainbat ekitaldi burutu dira. Argitalpenak ere asko dira: aurtengoak hamalaugarrena egiten du.

Udalak antolatutako edizio guztiak Durangoko Udaleko web orrian daude eskuragarri, liburuaren bertsio digitalean alegia: hor daude aspaldiko eta gertuagoko idazlanak guztion begi bistan.

2009. urtetik aurrera sari-banaketa ekitaldiko bideoa ere egongo da *durango-euskaraz.com* helbidean hiru ataletan banatuta: aurkezpena, ipuin irakurketa eta sari banaketa.

Beraz, uztartu egiten ditugu paperezko euskarria eta euskarri digitala, bateragarriak direlako eta elkarren ondoan nahi ditugulako.

Amaitzeko, zorionik beroenak irabazleei eta lehiaketan parte hartu duzuen milatik gorako haur eta gazte durangarrei.

Durangon, 2009ko azaroa

Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskera eta Kultura Batzordeko Presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 0 9



Paule Alzaga

Irabazlea 11-12 urteko sailean

San Antonio – Santa Rita ikastetxea



Julene Azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Hirusta sinboloa

Durangon, 2009ko apirilaren 4an, Aste Santua zela eta, Zabala familiak Lekeition erosi berri zuten etxera joatea erabaki zuen.

Larunbat goiz euritsua zen eta aita autoan maletak sartzen ari zen bitartean, ama eta bi seme alabak, Mainer 11 urtekoa eta Jon 7 urtekoa, etxean ezer ez zitzaicela ahazten ziurtatzen ari ziren.

Denak autoan sartu ziren eta bazkal ordurako jada Lekeition zeuden.

Erosi zuten etxean lehen beste familia bat bizi zen eta etxea nola zegoen ikusita oso ondo zaintzen zutela esan zitekeen.

Bakoitzak bere maleta hartu zuen eta haien logeletara joan ziren maletak uztera.

Maiderri ikaragarri gustatu zitzaion logela. Bere amak etxean aldaketa batzuk egin zituen baina Mainerren logelan ez, eta eskerrak.

Armairuan giltza bat topatu zuen. Eta giltza non sartzen zen jakitea gustatuko zitzaiokeen. Baina erabaki zuen lehenengo maleta guztia hustuko zuela.

Geroxeago gau mahian eguneroko bat aurkitu zuen, baina ezin zen zabaldu giltzez itxita baitzegoen. Momentu hartan lehen aurkitutako giltza gogoratu zuen. Eta jakina, giltza horrek eguneroko hori zabal zezakeen.

Eguneroko horren hasieran jabearen izena jartzen zuen: Olatz Elordieta. Eta hurrengo orrietan zera zioen: Eguneroko maitea: “Hemen kontatuko dizudanak gure artean geratu behar du, bale?”

Gaur arratsaldean, Aloña basora joan naiz eta zuhaitz batean hirusta baten marraskia ikusi dut, hobeto esanda, hirusta bat zuen sinbologia. Asko harritu naiz, beraz, erabaki dut bihar goizean Lekeitioko liburutegira joango naizela hirusta sinboloak zer esan nahi duen argitzera.

Heldu da hurrengo goiza eta liburutegira joan naiz. Kostata baina azkenean aurkitu dut hirusta sinbolodun liburua.

Liburuak zioenaren arabera hirusta sinboloak hau esan nahi du:

Maiderek ezin zuen irakurri hor zioena tintaz bustita baitzegoen. Horregatik Maiderek Olatz joan zen liburutegi berdinerara joatea erabaki zuen liburu hori aurkitzera.

Liburutegira joan zen eta ez zuenez liburua aurkitzen liburuzainari galdetzea erabaki zuen:

- Kaixo, barkatu baina, ba al duzue hirusta sinboloari buruzko libururik?

- Ez.

- A zer liburuzain jatorra eta hiztuna pentsatu zuen Maiderek.

Bat batean, izkina batean liburu zaharren multzo bat ikusi zuen eta liburu horien artean bera topatzen ari zen.

Ez zen liburuzainaz fio, orduan ideia bat bururatu zitzaion. Suteetarako alarmari ematera. Eta halaxe egin zuen.

Liburuzainak alarma entzutean korrika alde egin zuen sutea non zegoen jakiteko eta Maiderek bitartean berak nahi zuen liburua hartu eta etxera joan zen.

Etxera heldutakoan gurasoak agurtu gabe bere logelan giltzapetu zen eta irakurtzeari ekin zion. Irakurtzen ordu bat zeramala sinboloaren esanahia jakin zuen. Sinbolo hori sorginak eta haien ahalmenak gorroto zituzten pertsonak, bisurteetan jaiotzen ziren eta haien arbasoak sorginak ziren umeak izendatzeko erabiltzen zuten. Esanahia jakin zuenez, egunerokoa irakurtzen jarraitu zuen, eta zera zioen: "Arratsaldean basora joan naiz ea zer edo zer topatzen nuen ikustera. Sinbologia zuen zuhaitzaren ondoan txabola zahar

bat ikusi nuen eta hara hurbildu nintzenean elkarrizketa hau entzun nuen.”

- Kaixo Karlos, bueno badakizu zein den zure lana, ezta?

- Jakina, ume simple batzuk hipnotizatzea.

- Sinpleak?, txoratuta zaudel. Ume horiek sorginak dira eta ahalmenak dituzte.

- Eta zer egingo diezu, Fermin?

- Lehenengo sorginak direla desberdintzeko eta sufritzeko zauri sakon bat egingo diegu, ondoren, zauria orbanduko diegu; gero, hipnotizatzean baien ahalmenen berri emango digute eta guk haiek esandakoa grabatuko dugu eta azkenik ezertaz ez gogoratzeko pilula bat emango diegu.

- Eta zer lortuko duzu horrekin?

- Haiek sufritzea eta ondoren haiek esandako ahalmenen berri emango dugu epaitegian.

- Zergatik?

- Haien arbasoek nire arbasoa hiltzeagatik.

Hurrengo orrialdeak apurtuta zeuden, justu misterioa hasten zen momentuan.

Baina bat batean egunerokoa zegoen kaxoian karta bat zegoen eta han zioenaren arabera Martinez Fermin jaunak epaileari epaiketa bat egiteko eskatu zion sorginen kontra eta lehenengoz epaileak zorotzat hartu zuen Fermin. Baina neskek haien ahalmenei buruz hitz egin zuteneko grabaketa entzun ondoren epaiketa bat egotea erabaki zuen eta Olatz epaiketara deitua zegoen bera sorgin horietako bat baitzen.

- Zer? Olatz sorgina? esan zuen Mainerrek harrিতuta.

Egunak pasa ziren, jada apirilaren 18a zen eta Mainerrek ez zuen pista gehiagorik aurkitu.

Goiz horretan pentsakor esnatu zen Maider. Esnari bueltak eta bueltak ematen ari zela bere amak esan zion:

- Maider, esnea zorabiatuko duzu! Egun hauetan ez zara betikoa, medikuarenera eraman beharko zaitut.

- Hori da! Medikua ospitalean eta epailea epaitegian. Mila esker ama.

Hori esan, musu handi bat eman bere amari eta ziztu bizian abiatu zen epaitegirantz.

- Ez dut neska hau ulertzen esan zuen bere amak bere artean.

Maider epaitegira iritsi zen eta ertzainei kasurik egin gabe epailearekin hitz egiten hasi zen:

- Kaixo epaile jauna.


- Kaixo.

- Mesedez, esan al didazu nola bukatu zen ume sorginen buruzko epaiketa?

- Sentitzen dut, baina zin egin nien ez niola inori kontatuko eta ez dut gogorarazi nahi.

Maider epailea konbentzitzen saiatu zen baina ezinezkoa zen. Epailearen bulegotik irteten ari zela apal batean epaiketa guztien bideoak ikusi zituen eta horien artean bere galdera erantzuten zuena. Gaua iritsi zen eta Maiderrek ez zuen bideoa hartzeko modurik aurkitzen. Ia etsituta egunerokoa hartu zuen eta egunerokoak zuen ezkutuko poltsiko batean hitz magiko batzuk aurkitu zituen. Altuan irakurtzen ari zela, bere neba, Jon, logelan sartu zen. Maider ez zen konturatu. Hitz magikoak esan ondoren bere neba lurtean ikusi zuen lo seko. Momentu horretan konturatu zen zertarako balio zuten hitz magikoek. Jon bere logelan utzi eta epailearen bulegorantz abiatu zen. Epailearen bulego aurrean ertzainak ikusi zituenean hau esan zuen:

Itxi begiak, ondo lo egin, esnatzerakoan ez minik egin. Ertzainak lurrera erori ziren eta Maiderrek bideoa hartu zuen. Etxera heldu eta segituan bideoa ikusi zuen, ezin zuen hurrengo eguneraino itxaron. Azkenean, jakin zuen sorginek irabazi zutela, demostratu baitzen Ferminen arbasoa sudurluze galanta zela eta hil bazuten ez zela ume horien errua. Ferminen galdu zuela



jakitean umeak jotzen saiatu zen, burua galdu zuen. Horregatik epaileak erabaki zuen Fermin psikiatra batengana bidaltzea eta sorginen kontu hori inori ez esatea. Gau horretan Maiderrekin primeran egin zuen lo. Hurrengo goizean aitak esnatu zuen:

- Egun on, loti eder.

- Egun on erantzun zuen erdi lo.

- Zer, egin al duzu maleta?

- Zer egun da, ba?

- 19a. Eguerdian aterako gara.

- Zer? Ja! Bueno ba nik maleta egin baino lehen errekadu txiki bat egin behar dut.

Maidarren errekadu misteriotsua: bideoa bere lekuan uztea zen. Bere asmoa epailea lokartzea zen baina ez zen beharrezkoa izan epailea komunean baitzegoen. Bideoa bere lekuan utzi zuen eta irtetera zihoanean epailearekin topo egin zuen.

- Berriz ere zu? Esan nizun ez nizula ezer kontatuko eta orain ... alde!

- Bale, agur esan zuen Maiderrekin irribarre handi batekin.



Etxera heldu, maleta egin, bazkaldu eta autoa hartuz Durangora bueltan abiatu ziren.

- Nire Aste Santuko oporrik onenak izan dira esan zuen Mainerrek.
- Ez duzu lagunik egin eta esan zion amak.
- Ei!, begira zelako basoa Jonek.
- A zer txabola polita gehitu zuen amak.
- Ja, polita baliteke, baina ez dakitelako zer gertatu zen han, bestela...
-xuxurlatu zuen Mainerrek.
- Zer esan duzu? galdetu zion nebak.
- Ezer ez. Mainerrek.



Leire Rodriguez Elgueta

Akzesita 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Ezkutuko etxea

Bart gauean berandu arte geratu nintzen ordenagailuaren aurrean, horregatik gaur, erlojuari begiratu eta korrika altxatu naiz etxetik.

Ikastetxera 10 minutu berandu heltzea ez da izan hain gogorra, baina matematikako klasean lo geratu naizenean gorriak ikusi ditut.

Irakasleak oihu egin dit eta nire ikaskideak nitaz barre egiten aritu dira saio osoan.

Jolastorduan irakaslearekin hitz egiten geratu behar izan dut, eta beti bezala zigorra jarri dit, gainera zigor berezia: Jantokia garbitzen geratu beharra.

Jan ostean erratza eskuan hartu eta berehala jantokia garbitzen hasi naiz. Baina garbitzen nengoen bitartean gauza distiratsu bat ikusi dut lurrean, bertara abiatu eta zulo txo bat zegoen. Bat batean zart! Zuloa handi bihurtu eta eskailera batzuk agertu dira. Harrituta gelditu naiz eta ez nekien zer egin, jaistea erabaki dut.

Bertan nengoenean zuloa txikitu egin da berriro eta eskailerak desagertu. Laguntza eskatzen saiatu naiz baina alferrik, jantokian ez zegoen inor.

Nire ustez ezkutuko etxetxo bat zen: komuna, jangela eta ohe batekin, baina egia esan orain abandonatua egon beharko du, dena zikin-zikin zegoelako.

Bat batean ate bat ikusi dut, kontu handiz ireki eta...

Saguzarrez betetako beste logela bat agertu da guztiz ezberdina. Bertan argazki bat ikusi dut horma baten aurka itsatsita, argazkia eskuetan hartu eta horman ere beste zulo bat sortu da. Honen barruan logela argizatzen duen leiho itxurako bat zegoen, gorantz begiratu eta liburutegia ikusi dut, oso arraroa iruditu zait.

Azkenean logela haietatik irtetea lortu dut

Nire laguna aurkitu eta dena kontatu diot baina ez dit sinistu.

Irakaslearengana aurreratu eta argazkia erakutsi diot. Bera barrezka hasi da eta hau esan dit:

- Lehen etxe horretan gizon bat bizi zen ezkutuan, baina egun batean zu bezalako gazte batek ikusi eta berehala alde egin zuen.

- Eta zergatik? Galdetu du nire lagunak

- Inork ez daki. Erantzun digu andereñoak.

Etxera iritsi eta segituan, telefonoak jo du.

Nire musikako irakaslea zen, bere ahotsak ez zirudien oso alaia eta bere hitzak entzutean nire ahotsa ere guztiz aldatu da:

- Musika klaseko sabaia erori egin da, eta bihar ez da klaserik egongo.

Berehala nire lagunari deitu eta dena azaldu ostean ni bezala geratu da eta bera ere ideiak bilatzen hasi da.

Hurrengo egunean matematikako klasean pentsakor geratu gara eta ideia bat bururatu zait, eskuan nuen orria hartu eta idazten hasi naiz:

- Ezkutuko etxea erabili al genuke musikako gela konpontzen duten bitartean.

Tolestu ostean nire lagunari pasatu diot eskutitza eta berak zabaldu eta irakurri ondoren irribarre bat bidali dit.

Klase ostean musikako irakaslearengana hurbildu eta proposamena azaldu diogu eta berak buruaz baietz erantzun.

Orduan ikasleei abisatzera joan gara, denok geundenean irakasleak eskerrak eman dizkit denon aurrean, eta piperra bezain gorri jarri naiz.

4 egunetan ezkutuko etxean egon gara klaseak ematen, eta jada konpondu dute musikako klasea eta berriz normaltasunera iritsi gara.

- Beno hau izan da nire istorioa. Agur eta hurrengo arte.





Markel Arbulu Dudagoitia

Irabazlea 13-14 urteko sailean

Kurutziaga ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Paper zuriaren abentura

Paperen bizitza oso luzea eta bizitsua, edo oso laburra eta aspergarria izan daiteke; batzuek suertea daukate eta beste batzuek berriz ez, gizakien moduan. Paperentzako alaitasunik handiena beraiegan ipuin idatziak eta marrazki koloretsuak izatea da, bestalde, zuriz badaude triste eta bakarrik sentitzen dira. Suertea daukaten horietako batzuei liburuak egiten dizkiete gizakiek; gero, erregea bezala tratatzen dituzte eta, batzuetan, beste liburu batzuekin batera liburutegian jartzen dituzte: Hau da paper baten betiko ametsa, liburutegi batean maitatua izatea eta jende guztiak bera irakurtzeko nahia izatea. Baina hori ez da paper guztien patua. Beste batzuek, nahiz eta marrazturik eta idatzirik egon, gizakiek zakarrontzia deitzen dioten kaxa handi batera botatzen dituzte beraientzat "baliogabeko" diren paperak geroago erretzeko. Baina bada beste ontzi bat hain txarra ez dena: gizaki batzuek "baliogabeko" paperak beste ontzi batera botatzen dituzte, beste paper batzuekin batera, geroago beste bizitza berri bat izateko eta berriro marraztuak eta idatziak izateko.

Ni papera izanik, suerte handikoa naiz niri gertatutako abentura idatzi batez jantzirik nagoelako. Orain abentura hori kontatuko dizuet.

Orain dela urte batzuk oso paper zuria nintzen, besteak baino askoz zuriagoa, birziklatu berria nintzen eta paperezko biltegi batean geunden. Han paper asko zeuden baina denetatik neu nintzen zuriena eta garbiena. Ni beste paper batzuekin batera kaxa batean nengoen, guztira kaxa hartan berrehun bat geunden. Handi xamarrek ginen paperak izateko eta horregatik ez zigun inork nahi. Kaxaren zirrikitu batetik jendea ikusten

eskaileratan gora eta behera, paperak eramanez. Gu biltegiaren bazter batean zegoen kutxa batean geunden eta gutaz ahaztuak zirela ematen zuen ez baitziguten jaramonik egiten. Oso asperturik geunden, zuri zuri, lerro huts bat ere ez geneukala. Kaxa erdi itxita zegoen eta dena ilun zegoen baina hala ere, ni hain nintzen zuria, ikusteko modukoa nintzela. Hasieran biltegian zeuden kutxen ehunena ere ez zen gelditzen, gu eta beste pare bat kaxa, baina horiek ere, bizkor eraman zituzten beraiengan marrazkiak egiteko. Gu ikusezinak ginela ematen zuen, ez baikintuzten erosi nahi.

Nire ametsa ez zen liburu gehienen modukoa, ez bainuen liburutegi batean egon nahi, leku batetik bestera, irakurle batetik bestera; nik leku batean geldi eta ondo zainduta egon nahi nuen, jendeak ni mirestea eta argazkiak ateratzea; hau da, museo batean egotea zen nire ametsik handiena.

Gelditzen ziren paper guztiak saldu ondoren biltegi hura itxi egin zutela ematen zuen. Eta hala zen, biltegi hura itxi egin zuten eta papera egiteko makinak erretiratzten hasi ziren altzairuak eta beste hainbat gauza sartzeko. Orain bai, papergileak kaxa hortaz ahaztu zirela ematen zuela.

Eraikina bulegoetarako moduan berrantolatu zuten: ordenagailuak sartu zituzten, idazmahaiak muntatu... Eta gu margoz eta arte materialez beterik zegoen bulego handi batera eraman gintuzten kontu handiz. Bulegoa oso handia eta koloretsua zen eta bazter batean mahai handi bat zegoen ordenagailu batekin. Ondoan, armairu handi bat zegoen, hainbat pertsona sartzeko modukoa; bulegoaren beste azalera guztia hutsik zegoen. Gu idazmahaiaren ondoan utzi gintuzten.

Baina eraikin guztia ondo jarri zutenean gizon dotore bat hurbildu zitzaigun. Nire ustez, gu eramatera zetorren papergile bat zen, baina oker nengoen. Gizonak kaxa zabaldu, paperak banan bana xehetasun osoz begiratzen hasi eta sailkatzen hasi zen. Ni paper multzoaren erdialdean nengoen eta begiratu nindueanean harridura aurpegia jarri eta besteengandik banatu ninduen. Suposatzen dut besteak baino zuriagoa nintzelako izango zela eta, seguruenik, berriro ere birziklatzera edo, okerrago, zakarrontzira botatzeko asmoa izango zuela. Orduan, beste paper guztiak kontu handiz armairu handi batean gorde eta ni idazmahaian jarri

ondoren, aurrez aurre jarri zitzaidan, pentsakor. Ni oso urduri nengoen zakarrontzira botako ninduenaren beldurrez.

Baina bat batean mahairen ondoan zegoen armairua zabaldu eta pintura pila bat atera zituen, hainbat arkatz, errotulagailu eta tramankulu. Oso oker nengoen, gizon hura margolaria zen, eta ni aukeratu ninduen bere marrazkiak egiteko. Eta orduantxe konturatu nintzen gu ez geundela biltegian abandonaturik, margolariarentzat gorderik baizik. A ze lasaitua hartu nuen horretaz konturatzean, eta lasaitasunarekin batera ikaragarritzko poza, niregan bere marrazki koloretsuak egingo zituelako.

Margolariak margoak eta holakoak atera ondoren ni egurrezko oinarri batean ipini ninduen eta margoan bustitako bere pintzel leuna nire gorputzean zehar pasatu zuen kolore argi eta alaiekin. Nire gainaldean paisaia lasai eta eder bat agertu zen. Bertan, behealdean, ur gutxi zeraman erreka bat ikus zitekeen eta goraxeago haizeak inarrosten zuen zuhaitz alai bat, bere hostoak batetik bestera zeramatzala. Atzean, harkaitzezko mendi handi batzuk ageri ziren zeru urdin eta hodei zuri lasai batzuen behealdean.

Bera, margolaria ere, harritua gelditu zen. Hain zen polita nigan pintatu zuen koadroa! Margolariak orduan bere armairu handitik egurrezko marko bat atera zuen eta bertan ipini ninduen pintura lehortzean. Margolariak oso pozik ematen zuen eta ni ere oso pozik nengoen, bera oso marrazki polita marraztu zuelako eta ni, aldiz, marrazkia nigan zegoelako.

Markoa jarri ondoren, telefonoa hartu eta dei bat egin zuen; "amaitu dut enkargua, amaitu dut enkargua" errepikatzen zuen behin eta berriz. Eta hizketaldi luze baten ondoren telefonoa eskegi zuen. Minutu batzuk geroago, trajea eta bibotea zeraman gizon lodi bat sartu zen bulegoan, eta margolaria agurtu zuen; gero zuzenean niregana etorri eta kontu handiz aztertu ninduen: poz aurpegia jarri zuen eta oso gustuko zuela esan zion margolariari gutun azal bat ematen zion bitartean. Margolariak gutun azala zabaldu eta irakurri zuen: "zure koadroa gure arte ederreko museoan jartzera gonbidatzen zaitugu". Momentu hartan margolariak salto bat eman zuen pozaren pozez, eta nik ere egingo nuen gizakia izan banintz, nire ametsa



egia bihurtzeko zorian baitzegoen. Pintoreak gutun azalaren barruan behatu zuen kontu handiz eta diru sorta bat atera zuen, orduan gizonak esan zihon: "Diru hau zure koadro erosteko da ". Baina pintoreak erantzun zion: "Zergatik hainbeste diru koadro arrunt bategatik?". Eta gizonak erantzun zion: "Aurrerago jakingo duzu zergatik, je, je, je ..."

Orduan ni kontu handiz hartuta eraikinaren kanpoaldean zegoen furgoneta batera eraman ninduten eta gizon lodia furgonetan sartu eta museorantz abiatu ginen.

Bidaia luze baten ondoren muga batera heldu ginen eta furgoneta goitik behera arakatu zuten poliziek, ea zer edo zer txarra ba ote zegoen, baina gizon lodi hura eta ni baino ez geundenez pasatzen utzi ziguten.

Ordu batzuk beranduago, furgoneta eraikin abandonatu zahar batean sartu zen. Hori ematen zuen furgonetaren leihatilatik baina berriro ere oker nengoen. Han barruan jendea zegoen eta makina pila bat, bertatik dirua ateratzen zena. Orduan ni furgonetatik atera eta esan zuen gizon lodiak: "Hemen duzue dirua faltsifikatzeko papera, hirira eraman alkoholarekin pintura kentzeko eta kito; pintatuta ekarri behar izan dut muga pasatzeko".

Momentu hartan konturatu nintzen ez ninduela museo batean jartzeko erosi, dirua faltsifikatzeko baino.

Hirira bidean furgonetak oso zakar biratu zuen eta ni leihatilatik bera amildegi batera erori nintzen. Baina gizon lodia ez zen konturatu. Suertea izan nuen eta zuhaitz baten gainean erori nintzen, baina galduta nengoen. Han ez zegoen inor. Hortxe botata egon nintzen bost bat gau, goiko bidetik paseatzen zebilen gizon batek ikusi ninduen arte. Gizonak harrিতuta begiratu zuen eta niregana jaitsi zen. Orduan esan zuen: "Ze paper argi eta zuria, kilometro batetik ikusteko modukoa da, eta gainera marrazki oso polita dauka: talentu handiko artelana da. Baina norena?" Kontu handiz jaso eta errepidera igo ninduen. Errepide ondoan zegoen autoan sartu ninduen.

Erreka handi batek zeharkatzen zuen hiri polit batera eraman ninduen. Hirian, bulego batera eraman eta aztertu egin ninduten. Dirua egiteko papera



nintzela konturatu zirela zirudien. Baina nik ez nuen dirua izan nahi, nahiz eta oso preziatua izan.

Ni aztertu ondoren berriro ere furgoneta blindatu batean sartu ninduten, eta hiri guztia zeharkatu ondoren ibaiaren ondoan zegoen burdinazko eraikin handi batera eraman ninduten. Bertan paper pila bat zeuden marrazki politekin, eta baita eskultura izugarriak ere burdinez eginda. Jende asko zegoen. Alde batetik bestera paperetan zebiltzan marrazkiak ikusten, museo baten moduan. Sarrera kartelean hauxe jartzen zuen: Guggenheim museoa. Nire ametsa egia bihurtzeko zorian zegoen.


Azkenean, egurrezko marko batean ipini ninduten kontu handiz sala baten erdian beste artelanekin batera. Mirespen izugarria zidaten, dirua egiteko papera nintzelako, edo marrazki polita nuelako, baina hala ere nire ametsik handiena egia bihurtu zen. Aurrerantzean egunero egunero milaka turista pasatzen ziren ni ikustera, eta harrituta gelditzen ziren. Ez nekien zer gertatu zitzaion margolariari, baina halako egun batean nire aurrean agertu zen eta harrituta gelditu zen berak marraztutako koadro bat hain museo famatuan ikustez.



Arnaitz Iriondo Zugazartaza

Akzesita 13-14 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Ikusezina naiz

Eguzki izpiek logelako leihoak zeharkatu eta nire aurpegia laztandu dute. Begiak zabalduz eta nagiak aterata, beste egun bati hasiera eman diot. Ohetik altxatu eta sukaldera joan naiz eguneroko kafetxoa hartzera. Lanera joateko ordua heldu zait konturatu gabe eta, noski, nire lankidea den maletatxoa prestatu dut. Bertan, sagar bat, salami ogitartekoa eta, nola ez, nire beste ni a sarturik kalera abiatu naiz. Igogailurik ez duen zazpigarren pisu batean bizi naiz eta egunero, 306 eskailera jaitsi behar ditut.

Nire etxetik lantokira pare bat kilometro daude eta paseatzea asko gustatzen zaidanez, oinez joaten naiz bertara. Ibilbide honetan, denetarik ikusteko aukera izaten dut. Beti aurkitzen dut berria, arrotza egiten zaidan zerbait eta sekula ez naiz aspertzen. Horregatik aukeratu nuen hiri hau. Pasealeku erdian, atsedean hartzeko betidanik gustatu izan zaidan egurrezko eserleku bat dago. Gaur ere, ohi bezala, bertan eseri naiz. Aurrez aurre, prentsa, gozokiak... saltzen dituen kiosko bat dago. Zenbat denbora ote darama hemen? Nik baino gehiago bai behintzat. Banku honetan lehendabizi eseri nintzenean, eta badira urte batzuk, bertan zegoen. Nik egunero komiki bat kentzen diot, baina, Cesarrek, bertako jabeak, badakiela uste dut. Gure arteko joko edo sekretutxoa izaten jarraitzen du.

Eserleku honetan nagoenean, gauza askotaz ohartzen naiz. Nork dio txinatar guztiak berdinak direla? Edota, beltzaran guztiak kolore berbera dutela? Denok denbora bat beharko genuke, une batez, inguratzen gaituena arretaz aztertu eta gozatzeko. Bestelakoa litzateke mundua! Hara!

Han dator aspalditik liluratzen nauen neska. Hainbeste denboran, nahiz eta egunean birritan ikusi ezin naiz hain zoragarria den edertasun hori ikusteaz nekatu. Hala ere, berarentzat ikusezina naiz. Metro bat eta hirurogeita bost inguruko gorputz liraina du, txokolatea bezalako ile luze erakargarria eta hori gutxi balitz, sagar berde kolorea begietan. Bera ene aurretik pasatzen den bakoitzean, abuztuko egun eguzkitsu eta bero batean, hondartzan sortzen den haize kirri goxo hori bezalakoa sentitzen dut. Baina haize kirri hori, lastimaz, nire maitearekin batera, arinegi desagertzen da “Port Vell”-eranzko norabidean. Berak begiratu ere ez nau egiten. Eskerrak, barneko indar batek berarenganako dudan sentimendu hori esperantzaz hornitzen duen.

Batzuek esaten dute nire lana oso gogorra dela, ez dut ezeztatuko, baina nik oso gogoko dut, umeen aurpegiak ikusteagatik soilik bada ere. Niretzat eguneko momenturik zailena lanerako prestatzea da, nire beste ni aren metamorfosi unea delako. Metamorfosiaren emaitzak Cristóbal Colonekin du zerikusia. Bere oroimenez egiten dudan zerbait da. Berak mundu berria aurkitu zuen eta era honetara ni neu ere, nire barruko mundua aurkitzen saiatzen naiz. Zizareek haien metamorfosia burutzeko hainbat elementu behar dituzte, ondoren, tximeleta politak bilakatzeko. Nik, aldaketa hori egiteko ezer gutxi erabiltzen dut: urre zahar koloreko makillajeak, arropa zahar bereziak, etab...

Behin, nire eraldaketa ginda dagoenean, plastikozko kaxa baten gainera igo behar naiz, eta noski, eskumako besoa jasota izan behar dut lanak irauten duen bitartean. Aurrean McDonald's eko “kaxatxo” bat jartzen dut eta noizbehinka, txanpon batek beste batekin kolpatzean egiten duen “txin” zaratatxoa entzutean, kapela jasoaz agurtzen dut jendea. Irabazten dudana ez da asko baina, bizimodu xumea egiteko nahikoa izaten da. Lehen esan dudan bezala, lan honen alderik polit eta atseginena umeen irribarretxo goxoak ikustea da. Begiak zabal zabalik izaten ditut begira. Askotan beraiek dira eguneko poztasun bakarra.

Jai egunetan jende gehiago ibiltzen da eta are gehiago opor egun berezietan, hauetan atzerritarrez betetzen baita hiria eta batez ere kale luze eta zabal hau. Eguraldi eguzkitsua edo beroa egiten badu jendea gehiago animatzen da eta noski, horrela nire ekonomiak gorantz egiten du. Ez hori



bakarrik, eguraldi onarekin lan hau betetzea errazagoa eta atseginagoa da euria egiten duenean baino.


Arratsaldeko seiak dira eta han dator nire ametsetako neska. Bera pasatzean, kaleak berarentzat isolatuko balira bezala ikusten ditut. Egunero, sei urtetik hona alboan dudan lora postutik lora sorta bat hartzen du. Gaur ere horixe egin du, eta... Ezetz asmatu zer gertatu den? Lora sorta horretako lorerik ederrena bota dit begietara begiratuz. Une horretan nire bihotzak bere lekutik atera nahi izan du, urdailean kilimak sentitu ditut eta mundua momentu batez gelditu balitz bezala ikusi dut. Biok aurrez aurre. Biok mundu honetatik at. Jadanik ez naiz ikusezin. Nire beste nia, hau da, "La Rambla"ko Colon mimoa agurtu du. Ondoren ni neu ere agurtuko nau? Esperantza lagun, horren zain geldituko naiz.




Dana Alonso

Akzesita 13-14 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Zergatik ez?

2946ko martxoaren 12a zen, eta goizero bezala umeak eskolara zihoazen. Denbora hura eskolaz kanpoko gauzei buruz hitz egiteko erabiltzen zuten denek, azterketa zutenek izan ezik.

- Zer egingo dugu orain? Ez dugu ezer ikasi, eta ez dut uste Gizarteko irakasleak azterketa eguna aldatzen utziko digunik. azaldu zuen Amaiak kezkaturik.

- Beno, oraindik ordu laurden falta da eskola hasteko. esan zuen Anek itxaropentsu.

- Bai, baina historia oso luzea da jarraitu zuen Unaik Badakigu ez duzula beste ustel bat atera nahi , Ane, baina ezin dugu ezer egin, lehenago ikasi bagenu...

- Nik lagunduko dizuet. bota zuen haizeak bat batean. Hemen bizi izan naiz mundua sortu zenetik, zerbait jakingo dut...

- Ederto, hamar minutu dituzu.

Hamar minutuan gauza asko esan daitezke, beraz, haizeak hasieratik hasia erabaki zuen:

- Jaio nintzen, eta "Haizea" jarri zidaten izena, nahiz eta batzuetan, itsasoak "Airea" deitu. Egin nuen lehen gauza mundua ezagutzea izan zen. Leku guztietatik pasatu nintzen, eta hainbat lagun egin nituen: itsaso barea, hodeiak, sumendiak, eguzkia... Baina, nahiz eta lagun asko izan, ezin nintzen

haiekin jolastu; itsasora hurbiltzen nintzen bakoitzean, olatu ikaragarriak sortzen zirelako, eta zerurantz abiatzen nintzenean, hodeiak negarrez hasten zirelako.

Baina, nire zortea aldatu egin zen. Bat batean eta abisatu barik, "dinosaueroak" izeneko izakiak agertu ziren. Hainbat motatakoak: hegalariak, belarjaleak, handiak, txikiak.... Baina benetan onenak Pterosaueroak ziren. Astiro astiro mugitzen zituzten beren hegalak, eta triste edo haserre nengoenean, haize kirria bihurtzen ninduten.

- Eta zer pasatu zen? galdetu zuten umeek.

- Denbora pasatu zen. Eta dinosaueroak desagertu egin ziren zulo handi bat utzita nire bihotzean. Zuloa meteorito handi baten ondorioz gertatu zen.


Azken esaldi horrek tristura sortu zuen umeengan, baina haizeak bere kontakizunarekin jarraitu zuen:

- Jadanik lagunak aurkitzeko itxaropena galduta nuen, eta pentsatu nuen: zergatik ez? Orduan, tximino bat lau hanketan ibiltzetik bi hanketan ibiltzera nola pasatu zen ikusi nuen. Beste animalia espezie bat sortuko ote zen galdetu nion neure buruari. Urteak pasatu eta nire galderaren erantzuna aurkitu nuen; bai, gizakia deituriko animalia espezie berri bat agertu zen, tximinoaren eboluzioa.

- Orain dela 2,5 milioi urte! oihukatu zuten umeek.

- Oso ondo! zoriondu zituen haizeak Bete betean asmatu duzue. Izaki mota hura ikaragarria zen, oso azkar ikasten zuen ehizan. Lo egiten edo jaten zegoen bitartean, ni han nengoen, berari begira. Denborarekin, lanabesak, jantziak, etxolatuak ... egiten ikasi zuen. Gainera, oso garbia zen, eta dinosaueroek bezala, ez zion naturari kalterik egiten. Baina gero eta gauza gehiago egiten zituen, eta honek arazoak sortu zituen. Gizakientzat oso ona zen gauza berriak asmatzea, baina itsasoarentzat, atmosferarentzat edo niretzat, adibidez, oso kaltegarria zen, kutsatu egiten gintuztelako.

- Eta orduan zer egin zenuen?



Haizeak, umeen interesa ikusita, eten laburtxo bat egin zuen. Umeen aurpegiak gero eta urduriagoak ziruditen. Kontakizunarekin jarraitu zuenean, denak lasaitu ziren, eta arretaz entzun zuten.

- Oso haserre nengoen. Gizakiek, jadanik, etxeak, lantegiak eta parkeak eginak zituzten eta natura gero eta gehiago kutsatzen zuten; beraz nik ere kalte egin nien.

- Baina nola?

- Itsasoaren eta lurraren laguntzaz herriak eta hiriak suntsitu nituen. Tornado, tsunami eta lurrikara asko egon ziren mundu osoan. Jendea harrিতuta zegoen, ez zuen ulertzen fenomeno hauen zergatia. Niri ez zitzaidan egoera hori batere gustatzen, baina norbaitek konpondu behar zuen arazoa. Egun batzuk pasatu ziran, eta gure portaerak konponbide bat baino mendeku bat zirudien. Dena konpontzeko garaia heldu zen. Gizakiekin komunikatzeko modua aurkitu nuen. Zuhaitz baten ondotik emakume bat pasatu zen, orduan, nik zuhaitza astindu nuen, eta hostoak lurrera jausi ziren mezu hau sortuz:

Natura kutsatzen uzten duzuenean, bukatuko dira lurrikarak, tsunamiak...

Sinatuta: Haizea

Emakumeak mezua irakurri zuen, eta berehala joan zen besteei kontatzera. Inork ez zuen sinisten emakumeak esaten zuena, baina egoera latz horretatik ateratzeko ezin zuten gehiagorik egin, beraz, natura zaintzea erabaki zuten. Horri esker, ez dago kontaminazio handirik, eta zuek orain ezagutzen duzuen mundua sortu zen.

- Oso polita izan da. esan zuen Anek.

- Bai, eta gauza asko ikasi ditut. azaldu zuen Unaiak pozaren pozez.

- Nik era bai, eta badakizue zer izan den onena? Garaiz bukatu duela, eta orain azterketa egin ahal izango dugu, lasai lasai. Eskerrik asko, Haizea! esan zuen Amaiak motxila hartzen zuen bitartean.

- Bai, nik ere oso ondo pasatu dut, umeak, baina mesedez azalduko didazue zergatik ez duzue asteburuan ikasi?


Bat batean eskolako txirrinak jo zuen ... riiing!!



Elene Landia Ormaetxea

Akzesita 13-14 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



Julene Azpeitia Lehiaketa • 2009 urtea



2031, balleteko zapatilak

Gu 2031 balleteko zapatilak gara. Beno hori gure kodea da, izatez gure izenak *Ezker eta Eskuin* dira, eta gizakientzat arraroa izan badaiteke ere, dena entzun, ikusi, eta sentitzen dugu. Orain, kaxoi baten behealdean gaude, ahazturik, baina duela urte bat eta erdi edo, 54 urte zapatilen egutegian, gu biok, poltsatxo garden batean geunden sarturik, garbi, erabili gabe eta kamioi batean sarturik. Gazteak ginen garai hartan. Gu bezala, poltsa haietan zihoazen zapatila pare mordoska bat zegoen. Batzuk 32a, beste batzuk 38a... baina denok amets berdinez, kamioi hartan, dantzari profesional baten oinetan egotea. Guk bagenekien, noski, haietako inor ez zela zerbaitez iritsiko, ilusio larregi egiten ari ziren, egia esateko. Bagenekien gu izango ginela profesionalen oinetako zapatila bakarrak, gure amak antzina esana baitzigun.

Lagun handiak egin genituen 38 minutuko bidaia hartan: *Exkuin eta Exker 4300* kodedunak, *Heskuin eta Hezker 5312* kodedunak ... oroitzen garenean ze pozik geunden Durango izeneko herri hartara iristeko, nork itxarongo ote zigun bertan? Noren eskuetan jausiko ote ginen? ... pentsamendu haietan murgildurik geundela, bidaia hura bukatu eta kamioitik jaitsi gintuzten beste hainbat poltsatxorekin batera. Oraindik ere ez dakigu guztiz ziur non geunden baina uste dugu, kalean metro batzuk ibili ondoren, ate batetik gela gorri batean sartu zela gizon hura gurekin batera. Uste hori daukagu, hotz handia egiten zuen toki batetik, bero handia egiten zuen toki argitsu eta gorri batean geundelako bat batean eta bertan, kolpe handi batez, kaxoi txiki eta zuri batera bota gintuztelako. Argi zegoen

ariketa fisikoa egiten zen toki batetan geundela, ziurrenik dantza, musika oso altua eta izerdi usaina nabaria baitzen. Arrera oso atsegina izan ez arren, oso pozik geunden, gure jabe berria hurbil ibiliko zen eta. Konortea galdu genuen, jipoi ikaragarriaren eraginez, baina "lokartu" baino lehen; hau entzun genuen:

- Egunon.
- Bai, egunon.
- Bost ? Bai, bost zapatila pare...

Ez dakigu zenbat denbora egon ginen konorte gabe, orduak egunak edota asteak, baina egun batean, esku batean esnatu ginen. Hark beste esku batzuetan jarri gintuen, esku txiki eta atseginagoak. Haren esku maitagarrietan joan ginen pasillo batetik zehar "ALDAGELAK" zioen kartel baten zuen ate bat igaro arte:

- Arratsaldeon Maider, iritsi dira?
- Bai, Paule, hemen daude nire zapatila berriak.

Argi zegoen, guri buruz ari ziren hizketan. Maiderrek, gure jabea ala deitzen da, poltsa gardenetik atera gintuen eta bere oinetan jarri. Onartu beharra dugu, ez zela oso momentu atsegina izan, usaina ez baitzen brometakoa. Arin ohitu ginen gazta usain nazkagarri hartara, baina lurraren kontrako igurtzia askoz deseroso eta nazkagarriagoa izan zen. Zikin guztien gainetik, aldagelako lur umela zapaltzen...

Denbora pixka bat egon zen eserita, Paule eta Ainhoa izeneko beste bi neskatorekin hitz egiten, baina bat batean ordua zela esan zuen norbaitek, oraindik ez genekien bere izena, eta denak batera altxatu ziren. Hura izan zen ezagutu berri genuen jabearen aurpegia ikusi genuen lehen aldia. Ilea atzerantz bildurik, begi marroi handiak eta azal beltzarana, beno, ez pentsatu Benidormen, hainbat hilabetez eguzkia hartu besterik egin ez duen atso baten pareko kolorea zuenik, baina bai, aurpegi polita zuen. Imaginatuko duzuen bezala, hemen behetik, gauzak ez dira oso ondo antzematen, eta gutxiago miopia izan ezkerok guk bezala, hala ere, oso gustuko izan genuen gure jabearen aurpegi fin eta alaia.


Benoa baina hariari jarraituz, denak batera altxatu ziren eta "ALDAGELAK" zioen karteldun atetik irten ziren, berriro, beste ate batetik sartzeko. Ispiluz josia zegoen eta gorritz pintatua, han ere. Lurra, bestea baino leunagoa zen, eta eman berri dudana datu hori lelokeria irudituko zaizuen arren, lurreko bizitza oso gogorra da eta asko estimatzen da horrelako zoru gainean egotea. Gelaren hormatako batean, musika jartzeko makina zegoen eta honen parean, emakume lirain bat, dantza andereñoa.

Denak eseri ziren lurrean eta luzaketa egiten, hankak zabaltzen eta bata besteari sufriarazten hasi ziren: hanka gehiago zabalaraziz edo eseria eta hankak zabalik zituztela, paparrarekin lurra ukitzen behartuz, benetan ulertezina! Guk ez genekien noski, Maider hasi berria zela eta gure tortura hasteko zegoela.

Lehenengo egunetan, kolpe izugarriak hartu genituen: lurraren kontra botatzen zuen hanka lehenengo, gero saltoka hasten ziren denak batera eta argi zegoen neskatala hauek ez zituztela gure oihuak entzuten, ze bestela... ziur segituan geldituko zirela. Haietako egun batean, hankak banaka gorantz, ahalik eta goren botatzen ari ziren eta gero lurrera ekartzen berriro. Kontua da, gure neskatalak lurrera jaitsi beharrean lurrera jaurtitzen zuela, eta nork leunduko zuen kolpea? Oinetako zapatilek, nork bestela? Hura izan zen Bilboko "Euskaldunan" edo Parisko "Operan" egongo ez ginela ohartu ginen eguna eta baita gure kolore arrosa hura, gaztetan izaten den xarma hori, galtzen hasi ginen eguna.

Gerora, kolpeak eta ubeldurak eguneroko kontu bihurtu zirenean, tarradak heldu ziren. Handik bost hilabetera gertatu zen gutxi gora behera. Zolak askatzen hasi ziren eta oinak batzen zituzten gomen josturak apurtzen. Arratsalde batean, dantza saio gogor baten ondoren, aurretik inoiz gertatu gabeko gauza bat gertatu zen. Neskatoak, poltsatik atera gintuen eta bere amaren eskuetan utzi. Inoiz ikusia genuen, aurpegi bete eta gaztaina koloreko ile laburdun emakume hura. Garbitzeko bakarrik hartzen gintuen eskuetan. Baina kasu hartan ez zen horretarako izango.

Atzaparretan, burdinazko makilatxo txiki txiki bat zuen, oso punta zorrotztuna, azpialdean zulotxo bat zeukana. Orratz bat zen, gure gomak eta zolak errepasatzeko prest zegoena. Lehenengo ezker eta gero eskuin.



Orratzaren ibilbidea zapatilako oihaletan, sardexka haragi xerran edo ezpata gorputzean sartzean bezala da. Min handia ematen zuen eta hainbat egunerako izan genuen gurekin, baina, poltsa arrosako (balletera eramaten zuen poltsa) gainerakoek asko lagundu ziguten trantze hartatik irteten. Antza, pantiek ere, jasan behar izan zuten hura eta irten omen ziren, markak betiko iraungo duen arren. Egia da hobeto sentitzen ginela "operazioa" eta gero, baina ez zuen asko iraun. Udaberrirako gomak berriro hasi ziren apurtzen eta oihaletan zira eta zaharrearantz zuloak egiten hasi ziren.

Hilabeteak ziren gure jabeari amorrua hartzen hasiak ginela. Lehenengo zikindu, gero apurtu eta gainera josi. Baina zer uste zuen ba?

Jaramonik ez egitea pentsatu genuen. Lurrera itsastea eta bere lana zailteza. Baina horrek ez zuen ezertarako balio izan, etxera heltzean izkina batean uzten gintuen, lurrera jaurti eta gainera, lehen baino kolpe handiagoak ematen zizkigun. "Maidere! Lokartuta al zaude? Ez al duzu Ikusten ariketa ez dela horrela?" edo "Altxatu gehiago hanka hori, atso zaharra dirudizu!" esaten zion irakasleak. "Ez dakit zer gertatzen zaidan. Zapatilek pisu handia dute" erantzuten zuen berak.

Ondo sentitzen ginen andereñoak errietan egiten zionean baina etxera iristean hartzen genituen kolpeak ez zitzaizkigun batere gustatzen. Horrela ez gindoazela inora erabaki genuen eta umekeriak egiteari utziko geniola adostu, baina ordurako berandu zen. Zapatila berriak eskatuak zituen! Ordezkatzeko gai izango ote zen? Ba bai, bukaerara iritsiak ginen, dena bekozkoa jartzeagatik.

Dena den, erretiratu baino lehen, gure ametsa bete ahal izan genuen: antzoki batean egotea. Ez zen Bilboko Euskaldunan noski, baina bai Durangoko San Agustinen. Ordutik hona, gure poltsa gardenean gaude hasieran bezala, garbi, baina hautsita eta kolorea guztiz galduta. Pozik gaude bizitza luzea izan baitugu eta azkeneko egunean, Maiderekin garbitu eta txukun txukun utzi gintuelako, hildakoa uzten den bezala, bere logelako armairu baten sakonean.



Martin Gabiria Elejabarrieta

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Pentonen leiho

21/10/18

Pazientearen izena: Sean Penton.

Sexua: Gizonezkoa.

Adina: 36 urte.

Altuera: 180 cm.

Pisua: 75 kg.

Herentziazko gaixotasunik: Ez

Erantzuna baiezkoa balitz, zeintzuk:

Gaixotasunak, alergiak, fobiak edo bestelakoak:

- Eisoptrophia: oso maila altu batean.
- Antsietate krisiak: 21/10/6tik 21/10/9ra bizi zuena.

Bista fitxa klinikotik altxatu zuen Ben Mills psikoanalistak bere kontsultako harrera-gelako idazkariak atea jo zuenean:

- Mills jauna, pazientea itxaroten dago.
- Sar dadila, mesedez.

Idazkaria alde batera mugitu, eta sartzeko keinu bat egin zion atearen beste aldean zegoen norbaiti. Pare bat segundo ondoren gizon bat agertu zen idazkariaren albotik: altua zen, eta egoera fisiko onean zegoela zirudien. Ile gaztaintara ez oso luzea zuen, orraztu gabea eta zikina, eta

inork ez luke esango bakarrik 36 urte zituela bere begi berdeei begiratu ezkerro, gaztetasunaren bereizgarri den dirdirak desagertua zirudielako duela denbora asko. Honen ordez, pertsona guztiz paranoiko baten begirada zeukan bere begietan, beti zerk erasoko zain, leku batetik bestera etengabe eta oso arin so eginez. Pare bat aldiz begiratu zuen Mills doktoreak fitxan zegoen argazkia bertan zegoen New York-eko polizia irribarretsua eta bere aurrean zegoen gizona pertsona bera zirela egiaztatzeko, eta pare bat aldiz harritu zen, nahiz eta aldaketa hain izugarria izan horrela zela konprobatzean, argazkiko Sean Penton bere aurrean zegoena zela eta ez arropa garesti batzuk eta jaka on bat lapurtu berri zituen eskale zoro bat.

- Arratsalde on doktore.

- Arratsalde on Penton jauna. Etzan zaitetz dibanean mesedez, eta hitz egin dezagun zeure bizitzari buruz.

Bere buruari nondik hasi behar zen galdetzen momentu batzuk eman ondoren, Sean-en ahots urduria bere bizitzaren istorioa kontatzen hasi zen: “Ben, inoiz ez naiz psikoanalista baten eskuetan jarri arazorik konpontzeko, beraz, nire bizitzari buruzko datu batzuk emango dizkizut, lagungarriak izango direla espero: ni, hemen jaio nintzen, Brooklyngo auzoan, duela 36 urte; zehatzago, 1885ko irailaren batean. Zazpi anai-arrebetatik hirugarrena izan nintzen, eta geroago polizia izatea erabakiko zuen bigarrena. Aita ere polizia izan zen, eta horretan jardun du orain dela bi urte hil zen arte. Askok miresten nuen...”

BEN MILLS-en EGUNEROKOA.

21/10/18

Sean Pentonen kasua:

Oso kasu interesgarri bat ematen du honek. Gaur egin dudan gauza bakarra, Penton jaunaren bizitzari buruz hitz egitea izan da, nire aurrean hitz egin behar duenean lasaiago aurkitu dadin. Ezinezkoa dirudi hain aldaketa handia jasan izatea bi astetan bakarrik. Hurrengo saioan bere ispiluekiko fobiari buruz gehiago jakiten saiatu beharko naiz, batez ere noiz hasi zen hori sentitzen, zein egoeratan sentitu izan zuen lehenengo aldiz eta nola erreakzionatzen duen bere fobiaren aurrean. Nahiz

eta oso komenigarria izan ez daitekeen, eta hitz eginez informaziorik lortzen ez badut, ispilu bat erakustea pentsatu dut (batez ere bere erreakzioa aztertzeko). Datorren astea heltzeko gogo handia dut, paziente honek nire jakin-mina piztu duela aitortu behar baitut.

21/10/25

Sean Pentonen kasua:

Gaur nire kontsultan gertatutakoak onartu nahi dudana baino gehiago txunditu eta aztoratu nauela uste dut. Penton jauna kontsultara heldu denean (aste osoa bere burua garbitu gabe eman duela zirudien zeukan itxura eta zerion usaina kontuan hartuta, bere arazoaren magnitudea neurtzeko balio dezakeena agian), eta zelan zegoen galdetu ondoren, bere fobiari buruz galdetzen hasi natzai, gaia elkarriketan pixkanaka sartuz, oso bortitza ez izateko asmotan. Penton jaunak, momentu horretatik aurrera, modu ebasiboan erantzun ditu nire galdera guztiak, nik espero nuena baino urduriago jarritz. Ispilua erakutsi diodanean, burutik kendu ezin dudan erreakzio bat izan du: hasieran bere begiak, normalean gelditu gabe mugitzen direnak, ispilura begiratzen gelditu dira mundu osoan beste ezer ez balego bezala. Pixkanaka, aurpegia erabateko izuarekin bakarrik definitu daitekeen espresio batek hartu du, eta ondoren totalka hasi da hitz egiten zentzugabekeriak ziruditen gauzak esanez



adibidez, “Atea! Itxi atea!”, ”Badator! Hemen dago!” eta “Esferak! Argidun esferak urrundu itzazue! Laguntza!” aiene eta oihu hauek gero eta izugarriagoak bihurtzen joan dira, harik eta atearen beste aldetik nire idazkaria sartu den arte, arduratuta oso. Krisialdiak beste ordu bat iraun du, garrasiak amaitu eta gero, hauen ondoren pazientea mundu guztiarengandik isolatuta bezala egon baita, erdi totalka zentzugabekeria gehiago xuxurlatzen. Gertatutakoa ikusita, lasaigarri bat errezetatu diot, hurrengo astean erlaxatuago etorriko delakoan bere beste gaitzari buruz galdetzeko, fobia honek gogoratu nahi ez duen asteko zerbaitekin zerikusia duela uste baitut.

Hurrengo astean, Ben Mills etxera heldu zenean, ez zuen bere egunerokoa hartu. Jaka lurrera bota eta ohean sartu zen beste ezer egin gabe. Zurbil zegoen, eta guztiz aztoratuta, goiz hartan Penton jaunak kontatu zionagatik. Ahazten saiatzen zen etengabe, baina behin eta berriro zetozkion burura bere pazientearen hitzak, bat bera ere ahaztu gabe:

“Egun normala izan zen niretzat pasa den urriaren 2a, arratsaldean niretzako guztiz ezezaguna zen Mt Vernongo notario baten izenean niretzako gutun bat heldu zen arte .

Bertan nire Osaba Wallace Penton zendu zela zioen John Robertson jaunak (horrela deitzen baitzen notarioa), eta niri jaraunspenean bere etxearen jabegoa utzi zidala. Ondoren etxearen jabetzako eskriturak non jaso zioen, Mt Vernongo bere ofizinaren helbidea emanez, eta nahiz eta data zehatzik ez jarri, ahalik eta arinen etortzea eskatzen zidan, dokumentuak batu eta paper batzuk firma nitzan.

Hau irakurri ondoren oso arraroa iruditu zitzaidan osaba Wallace nitaz gogoratu izatea, batez ere birritan edota hirutan ikusi izana bakarrik gogoratzen nuelako nire bizitza osoan, eta aldi bakar horietan inoiz ez zelako bereziki amultsua nirekin. Egia esateko, nik neure osabari buruz nituen oroitzapen guztiak pertsona oso ilun, itxi eta misterioitsu batenak ziren, beti zer edo zer munduarengandik ezkutatzen ari den edota beragandik hurbil dauden pertsonen aurka etengabe konspiratzen ari den horietakoa

zela pentsatzera bultzatu nindutenak, honek, aldi berean, beregandik ahalik eta gehien urruntzera eramán ninduelarik.

Hala ere, eta nire senide hurbil baten azken nahia zelako, aste horretako ostegunean bertan Mt Vernonera heldu nintzen. Arratsalderako, paper guztiak beteta nituela, abiatu nintzen Mahopac-era (han baitzeukan etxea nire osaba zenak) eskriturekin eta bestelako instrukzio batzuekin. Bertan, nire osabak etxea ondo zaintzeko eskatu zidan, eta atikora behar beharrezkoa izanez gero bakarrik sartzea eskatzen zidan.

Mahopac-era heldu nintzen, baina errepide-mapak ez zidan zehaztasun handirik ematen eta, gainera, osabari ahaztu egin zitzaion etxearen helbidea ematea. Holaxe, herritarren bati galdetzea erabaki nuen, ez baitzen herri handia. Ondo heldu nintzen etxera, baina sentipen arraro batekin. Lagundu zidaten herritar guztiek urduritasunez jokutzen zuten nire aurrean Wallace Pentonen iloba nintzela jakitean, nitaz beldur balira bezala.

Eraikina nahiko zaharra zen, eta handia. Egurrezkoa zen eta arbel-teilatua zuen, ezin hobeto mantendua zirudiena. Tximinia bat zuen teilatuan eta honetatik pixka bat aldunduta, teilatuan baita ere, dorretxo moduko bat zegoen aurrealdean beira zati zirkular bat zuena, nondik –seguruenik– argi asko sartuko zen egunean zehar. Ezin izan nuen, heldu bezain laster, etxearen ingurua aztertu, eguzkiak denbora dezente zeramalako ezkutatuta jada, eta gau horretan ilberria zegoelako.

Etxe barrura sartu nintzenean, kanpotik zirudiena bezain handia zela egiaztatu nuen. Oso dekorazio klasikoa zuen, eta kandelaz argitua (beheko solairuko despentsan kandela erreserba asko aurkitu nituen, eta ordu erdirako etxe guztia argiz gainezka neukan. Bost gela zituen: jangela ez oso handi bat (osaba zenaren beharrei egokitua, ia inoiz ez baitzeturten gonbidaturik, inoiz etorri izan bazen); sukalde bat (janariz oso ondo hornitua ez zegoena baina beharrezko tresna guztiak zituen ia edozein janari prestatzeko eta jangelara konektatua zegoena); bigarren pisuan zeuden egitura berdina zituzten bi logela oso simple, ohe pixka bat deserrosoa, leiho eta armairu bana besterik ez zutenak; eta liburutegi-egongela erraldoi bat. Gela guztiak zeuden harrera gela ertain bati konektatuta ateen (edo logelen kasuan eskailera baten) bidez.

Baina, gela guztien artetik txundidura gehien sortu zidana liburutegia izan zen. Erdigunean idazmahai bat, honentzako aulki eroso bat, pare bat besaulki eta tximinia handi bat zeuden, guztiak luxuzkoak etxeko beste edozein gelatako altzairuekin konparatuta; hala era, hori ez zen ezer hormekin alderatu ezkerok: nire aurrean, tamaina eta itxura guztietako liburu-legioak zeuden, ezin hobeto antolatuta sabairaino heltzen ziren apaletan. Ez zen Pinkertoneko detektiberik behar nire osabak bere denbora gehiena zeri dedikatzen zion jakiteko.

Gau hartan, etxea goitik behera esploratu ondoren, atikoa salbu, ezin hobeto lo egin nuen egun nekagarri baten ondoren.

Hurrengo eguna heltzean, pentsatuta nuen bezala, goiz altxatu nintzen etxearen inguruko lurrik ikusteko. Egia esan, ez zegoen gauza interesgarririk edota arreta gehiegi deitzen zuen ezer. Etxea herritik urrun kokatuta zegoen, pixka bat zingiratsua zen toki batean, eta ez zegoen ez mendirik, ez basorik (arbola solte batzuk bakarrik) ezta animaliarik ere (igel edo txoriren bat salbu).

Zelaitik ibilalditxo bat egitearen aukera nola desagertzen zen ikusita, etxera sartzea erabaki nuen gosaldu eta beste planen bat prestatzera. Eguerdirako eginda nituen erosketa guztiak, batuta eta garbituta altzariak estaltzen zituzten oihalak eta amaituta etxeak behar zituen mantenu eta garbitze lan guztiak. Orduan, eta zer egin ez nekiela, egongelako apalak miatzea pentsatu nuen ea zer aurkitzen nuen.

Bertan aurkitu nituen liburuetatik bakar batek ere ez zuen nire osabari buruz nituen usteak ezeztatu. Gehienak zaharrak ziren, eta orokorrean gai oso ilunak tratatzen zituzten: okultismoa, antzinako mitologia eta jainko jainkosa heretiko eta izugarrien panteoi eta gurtze-errituak, profezia apokaliptikoak...

Liburu horien zatiak eta pasabideak irakurtzen hasi nintzen baina gauza horiekiko dudak ikuspegi eszeptizistak asperdura eragiten dit, liburu hori aurkitu nuen arte. Egia esan ez zen liburu bat, baizik eta eguneroko bat. Zehazki nire osabaren egunerokoa zen.

Kuriositateak bultzatuta, liburu astun hori irakurtzen hasi nintzen, eta irakurtzen nuen heinean gero eta egonezin handiagoa sentitzen hasi nintzen. Bertan osaba Wallacek ez zuen bere bizitzaz edota egunean eguneko gertakariei buruz hitz egiten. “Lan” bat aipatzen zuen behin eta berriro, proiektu bezalako bat, egiten ari zenari buruz oso argi ez idazteko bezalako makurra, iluna eta sakrilegoa ematen zuena. Hasierako notak nahiko luzeak ziren. Gehien bat liburu espezifikoko batzuen lorpenei buruzkoak ziren horiek. Liburuaren azken partean, notak gero eta laburragoak ziren proiektuari berari buruz hitz egiten hasten zenean. Askotan agertzen ziren honelako oharra, edo antzekoak: “oraindik ez dago prest”, “ate egokia bilatu dut”. Gehienak ate bati egiten zioten erreferentzia, edota ate bat (segur aski aurrean aipatutako ate bera) zeharkatzeko prestatzen ari zen norbaiti edo zerbaiti. Azkeneko oharra, osaba hil baino aste bat eta erdi arinago idatzia, honela zioen: “Atea guztiz prest dago. Laster hasiko naiz Bera deitzen, beharrezkoak diren faseetan. Gutxi geratzen da Bere ordainsaria jaso dezadan.”

Egunerokoa irakurtzen amaitzean konturatu nintzen jada gaueko hamaikak zirela, eta ohera joatera nindoala oso ezeroso sentiarazi ninduen zerbait sentitzen hasi nintzen. Pixkanaka, sentipen hori areagotuz joan zen benetako ezinegona eta estutasuna sentitzen hasi nintzen arte. Hala ere, egongela itxi horretan ia egun osoa egoteari leporatu nion estualdia, eta denbora gehiago galdu gabe oheratu nintzen.

Gauerdian izerdi patsetan esnatu nintzen izan nituen amesgaiztoak zirela eta; aipatzeak berak beldurtzerainokoak ziren amesgaizto deliranteak. Pixka bat lasaitu ondoren, zarata batzuk entzuten zirela jabetu nintzen, mundu honetakoak ez diren zaratak, infernu beretik ateratakoak ziruditen zarata apalak, baina guztiz entzungarriak.

Guztiz urduri, nire logelatik irten nintzen soinuen jatorria zein zen jakiteko asmoz, etxe barnetik zetozela ziur bainengoen. Eraikin zaharraren zoko, gela eta toki guztiak goitik behera miatu nituen, baina inon ez nuen ezer aurkitu, dudarik gabeko konklusio batera heldu nintzenean: Ganbara.

Ahal izan nuen adore guztia, eskailera bat eta olio-lanpara bat bildu ondoren, eskailera nagusiaren gainean zegoen tranpa-ohola zabaldu, eta orain arte niretzat ezezaguna izan zen gelara sartu nintzen.



Hain iluna zegoen ganbara, non itzalik beltzenak ere argia zirudiela bere aurrean. Lanparatxoak piztu nuenean, edozer gauza ikaragarri ikusiko nuela pentsatuz (amesgaiztoek nire irudimenean izan zuten eragina zela eta ziurrenik), betidaniko ganbara normal eta hautsez betea agertu zen nire begien aurrean, itzalek lehen haien erreinu zen ganbaratik desagertzean. Ikusten nituen gauza bakarrak, nire alboan utzi berri nuen sarrera, dorretxoaren beira zirkularra eta, gelaren erdigunean, pertsona normal bat bezain altua zen ispilu nahiko zabal eta ornamentatua ziren.

Argi dago, hiru gauza horietatik nire interesa gehien piztu zuena ispilua izan zela. Hurbiltzean, bere apaindurak hobeto nabaritu ahal izan nituen eta ez zitzaizkidan batere lasaigarriak iruditu. Bertan, izaki ikaragarri itsusi eta asaldatzaile batzuk gurtzen ari ziren itxura humanoidedun zuten zer batzuen eta guztiz lazgarriak ziren animalia batzuen erliebeak zeuden, ispiluaren euskarri bezala jokatzeko zuten egur beltz batean landuak. Haiengandik begirada altxatu eta ispiluan nire isla begiratzean izoztuta gelditu nintzen.

Berriro hasi nintzen oheratu baino lehenago izandako estutasuna sentitzen, baina aldi honetan askoz indartsuago izan zen; esnatu egin ninduten soinu lazgarriek berriro ere hasi zuten haien melodia maltzurra entonatzeko, jasanezina izatera helduko zen crescendo izugarri batean. Eta, bat batean, ni eta ganbararen islada ispilutik desagertu ginen. Momentu bat bakarrik izan zen, segundo baten frakzio bat bakarrik berriro itzuli baino lehen, baina ni eta ganbararen islada ispilutik desagertu ginen. Irudia itzuli zen momentuan bertan jabetu nintzen zerbait desberdina zela. Hasieran, ez zen oso bistakoa, baina pixkanaka zerbait sumatzen hasi nintzen. Ispiluan zegoena, nire islada barne, bihurritzen hasi zen gero eta gehiago. Mugitzen zen islada zatiei zuzenean begiratzean, irudia ondo zegoela zirudien, baina orduan jabetzen nintzen beste guztia ere etengabe bihurritzen hasten zela. Ni honetan kontzentratua nengoen bitartean islada aldatzen joan zen, pixkanaka irudi guztiak errealitatean aurki zitekeen ezer islatzeari utzi zion, azkenean inon eta inoiz ez zegoen leku bat erakusteko. Nire aurrean espazio beltz bat zegoen, izenik gabeko terrore deskribaezinez betea zirudiena, egia ulertu nuen arte. Izaki guztiak izaki bakarra ziren,




guztiak baten eta bat guztietan dena, atea eta giltza, nire aurrean neukan atalasetik irteteko prest zegoena nire osabak bere proiektua amaitzen zuenean!! Esferak!! ARGIDUN ESFERAK!!! EZ DADILA SARTU!!!”



Ane Aja

Akzesita 15-16 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



Julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Urreak beti egiten du dir-dir

Sergey Ivanovich Petrov. 8 urte. Yaroslavl-eko tren geltokiaren inguruetan aurkitua. Hilotza odol putzu batez inguratua zegoen lurrean etzanda. Heriotzaren arrazoa gazte talde baten eraso dela ulertzen da gorpuak azaltzen dituen ubelduren kokapen eta itxuragatik. Inork hildakoaren gorpua erreklamatu ezean hilobi arruntean lurperatuko da 3 egunen buruan. KASU ITXIA.

Badakit hau irakurtzean sinesgabetasun aurpegia jartzea besterik ez duzuela zuek, mendebaldeko umeek, nahiz eta hau nire herrian eguneroko kontua izan. Bai. Hau da Errusiarrok ume txiro eta zurtzak hiltzeari ematen diogun garrantzia; hutsaren urrea. Eta horixe izan zen bada nire nebaren hiletari eman ziotena ere. Olga Ivanovna Petrova dut izena eta nire neba txikiaren bizitzaren azken hatsa non, noiz eta nolakoa izan zen kontatuko dut.

Ez naiz inoiz honetaz mintzatu beharbada ez naizelako behar adina prest egon, baina gaur bai. 12 urte nituen nik 1998ko abenduaren bukaera aldean. Tira, egia esan data zehatzik ez dut, baina gabonak zirela suposatu nuen jendea opariak erosten batera eta bestera presaka zebilela ikusita. Hotza ere egundokoa izaten da gabonak aldera Moskun. Sergey eta biok etxetik alde eginak ginen zuela pare bat hilabete. Bueno, beharbada zertxobait gutxiago.

Etxeko egoera benetan jasan ezina zen. Aitatxo kartzelan zegoen politika arazo batzuegatik eta amak tristura alkoholean itotzen zuen. Txikiagoa nintzenean nik ez nuen amaren arazoaren berri, baina hazten zoazen heinean besteen gurasoek zergatik ez duten tabernan egun osoa ematen galdetzen diozu zeure buruari, zergatik zuk normaltzat jotzen

duzun jokabidea ez den besteengan azaltzen. 10 urte inguru nituenean hasi nintzen gauzak ulertzen. Nire adin txikiak ez zuen nire adimena mugatzen eta dena ulertzeko gai nintzen. Gauak igaro nituen itzarrik, negarrez. Denbora hartan bizitako irudi batzuk ezin izan ditut inoiz ahaztu eta negargura ematen dit akordatzen naizen bakoitzean. Amaren ganoragabekeriak nigan heldua izateko bat-bateko beharra piztu zuen, neba zaintzeko. Ez, neba ez. Ama zaintzen nuen nik neba baino gehiago, hark behar zuen benetako zaintza.

Handik ez askora amak, aita kartzelan zegoela, gizon bat ezagutu zuen, Yuri Pávlov. Yuri atsegin nuen, gure etxera etorri zenera arte. Aita, ama, Sergey eta lauron etxera. Yurik ez ninduen ondo tratatzen. Geroago jakin nuen Yurik egiten zidanak izen bat zuela. Bortxaketa.

Egoera jasangaitza bihurtu zen niretzat eta etxetik alde egitea erabaki nuen, amak ez baininduen sinesten Yurik egiten zidana kontatzen nionean. Baina ezin nuen Sergey bikotearekin utzi. Gure ama ez zen bere burua zaintzeko gai ere, eta Yurik ez zuen halako erantzukizunik zertan bizkarrean hartu behar.

1998ko urriaren 21ean etxetik ihes egin genuen Sergeyk eta biok. Nebak 8 urte besterik ez zuen baina bizitzak asko erakuts diezaiokie adin horretako mutiko bati.

8 urte eta 12 urte.

Umezurtzak, esan liteke.

Moskuko negua hasia zen jada. Termometroek zeropetik markatzen zuten eta guk nora jo jakin gabe. Hotza. Gosea. Etxemina.

- Aizue! -kaletik zebilen nire adineko mutiko bati so gelditu ginen haren oihua entzutean.

- Zer, kalean gelditzeko asmoa al duzue? -berriro mutilak.

Ezin genuen hitzik ahoskatu. Zer erantzun ez genekien, baina azkenean hitza hartu nuen:

- Ba, egia esan, etxetik alde egin eta ez daukagu nora joaterik.



- Banekien ba nik, aurpegi horiekin galderak soberan daude-eta. Tira ba, zatozte nirekin eta gutxienez teilatupean egingo duzue lo gaur.

Ez nengoen ziur mutil hori zintzoa zen edo ez, baina ez geneukan beste irtenbiderik, kalean lo eginez gero, hotzak ez bazen, beste zerbaitek gurea egingo luke.

Komsomolskaya kalean geunden eraikin baten aurrean. Gaua zutik iraungo ote zuen ez zegoen oso argi, baina hori baino txarragoa da kale gorria.

Han egin genuen lo. Bueno, han igaro genuen gaua hobeto esanda.

Izugarrizkoa izan zen eraikinera sartzean ikusitakoa. Benetan ez dudala inoiz ahaztuko. Nire adinekoak gutxi ziren, gehienak gazteagoak ziren. Askok poltsatxo batzuk zeuzkaten eskuetan, eta sudurra eta ahoa poltsan sartu eta hor ibiltzen ziren poltsa puzten eta husten. Gero tontakeriak egiten zituzten eta nahiz eta jausi, kolpatu edo mina hartu barrez lehertzen ziren umeak. Ez nuen jokabidea ulertzen. Beste batzuek nire amak bezala edaten zuten. Hauenganako senezko gorroto moduko bat sentitu nuen.

Hurrengo egunean neskato bat hilda agertu zen. Besteek “pegamentu”ari egotzi zioten errua. Baina pegamentua nik ezagutzen nuena baldin bazen, itsasteko balio zuena, nola liteke neska hura hilarazi izana?. Aurreko egunean hara eramán gintuen mutikoari, Vladimirri (Vova deitzen zioten besteek), galdetu nion ea pegamentuak nola hil zezakeen neska bat. Dena azaldu zidan. Poltsatxoak pegamentuz beterik zeuden eta horixe zen umeeak arnasten zutena. Hark eragiten zien barregura. Hark ezkututzen zien beren benetako bizitzaren errealitatea. Hark akabatzen zituen.

Ez dakit nora eramango zuten, baina neskatoaren gorpua desagerrarazi zuten.

Ondo irakatsi zigun Vovak Moskun bizirauteko behar zena Sergey eta bioi. Lehenik eta behin dirua lortu behar zen. Dirua lortzeko nik neure gorputza saltzen nuen eta nebak pailazoarena egiten zuen plazetan txanponen bat noiz jasoko zain. Lortzen nuen diru guztia nire nebari janaria erosten gastatzen nuen, eta bera asetakoan, orduan neuk jaten nuen. Nebak eta biok ez genuen inoiz ez pegamentua ezta alkohola probatu. Lehenik eta behin amarekin nahikoa jasan genuelako eta bigarren, batak besteari egingo ez genuela zin egin geniolako.

Gure egoera ez zen horren txarra. Janaria geneukan, eta lo egiteko lekua ere bai. Baina garrantzitsuena zen batak bestea geneukala. Beste umeeak pegamentuarekin eta alkoholarekin sufritzen zutena ikusita, gu pozago geunden, geure buruak mundu horretatik kanpo sentitzen baikenituen.

Hilabete eta erdi igarotakoan ordea nik denboraldi txar bat izan nuen eta ez nuen jateko adina diru irabazten. Etxetik alde egin baino lehen Sergeyk bere urrezko eratzunak hartu zituen eta nik nire lepoko eta zirtziluak. Eskerrak horri, bestela gorriak ikusiko genituen bizirauteko. Nire lepokoak saldu eta diru piloa irabazi genuen, urrezkoak baitziren. Bene-benetako urrezkoak.

Dena gauetik goizera aldatu zen ordea. Gure taldeko mutikoak pixkanaka desagertzen hasi ziren. Vovak esan zidan talde etsaiek kaleak goitik behera miatzen zituztela gauetan biktimen bila, hau da, zirika zitzaketen mutilen bila.

Norbait aurkituz gero jipoi batez akabatzen zuten. Beldurra begi bistakoa zen taldeko mutilen artean, eta, gau batean neba ez zen itzuli. Orduan kezkek. Orduan beldurra. Orduan itxaropena galtzea. Orduan dena galdu nuela sentitu nuen, nahiz eta neba noizbait aurkituko nuela sinetsi. Edo sinetsi nahi. Baina zer egin nezakeen nik? Militsiyak ez lidake kasurik egingo eta Mosku oso handia zen ni bezalako neskato batek mutiko bat aurkitzeko.

Ez nekien zer egin. Ez nuen etxera bueltatu nahi, ezta “etxe” hartan gehiago geratu nahi ere.

Nire gauzak hartu -geratzen zitzaizkidan txanpontxoak- eta kaletik ibili nintzen noraezean. Bizpahiru egun neramatzan inolako jakirik hartu gabe eta ondorioz konortea galdu nuen etxarte baten.

Esnatzean mutil koadrila baten erdian nengo.

- E! Mutilak! esnatzen ari da, zatozte agudo! -oihu egin zuen batek.

Berehala nituen inguruan sei mutilen begiak ireki-irekita niri begira, txunditurik.

- Ondo al zaude? -batek

- Bai..bai..baina, non nago? -galdetu nuen nahastuta

- Kanean botata aurkitu zintugun eta egiten zuen hotzarekin gure laguntzarik gabe ez zinateke bizirik egongo polit hori -lehengo tipo berdinak.

Konortea galdu eta lurraren kontra emandako kolpeak sekulako burukomina eragin zidan. Bat batean esnatu ninduen zerbait ikusi nuen; ezaguna egiten zitzaidan eratzun bat, alegia. Baliteke kolpeगतिक izatea, hain izan zen gogorra, baina ezin nuen asmatu zer gogorazten zidan eratzun hark.

Mutilek jaten eman zidaten eta pegamenturik nahi nuen galdetu zidaten. Ezetz erantzutean harrিতuta begiratu ninduten.

- Ez duzu pegamenturik nahi? Ziur al zaude?

- Ez dizugu bat ere kobratuko, zaude lasai.

- Ez, norbaiti zin egin nion ez nuela probatuko, benetan estimatzen dudan norbaiti. -ez nien nebari buruz hitz egin, bada ezpada ere.

Ezin nuen eraztuna burutik kendu. Egonezina nuen, buruari bueltaka ibili nintzen.

Eraztunaz galdetu nahi nion mutil hari, baina ausartegia iruditu zitzaidan hortik hastea. “Zelako eraztun polita! non lortu duzu?”, agian. Ez. Ausartegia oraindik. Niri buruz hitz egin eta berari buruz hitz egiteko eskatzea litzateke hoberena kasu hartan. Bai. Beno, lehenik eta behin izenaz galdetzea ez legoke gaizki...

- Kak tebia zovut?-aurreratu zitzaidan.

- Menia zovut Olga -erantzun nion.

- Menia zovut Andrey.

Olga dei ziezadakeela esan nion, konfiantza apur bat lortzeko nahian.

Andrey umezurtza zen. Ez zituen gurasoak inoiz ezagutu. Pegamentua lortzeko edozer egin zezakeela aitortu zidan, baita jateari utzi ere. Negar zotinka hasi zitzaidan. Elkarrizketa etetea erabaki nuen. Ez nuen mindu nahi. Berak ez zuen ordea elkarrizketarekin amaitzeko asmorik. Niri buruz jakin nahi zuen. Nire istorioa kontatu nion eta askoz lasaiago ikusi nuenean eraztunagatik galdetu nion.

- Eraztuna? Zorigaiztoko bati kendu nion. Nire kaletik zebilen eta nire kalean dagoena nirea da. Gustuko? -burua gora eta behera mugitu nuen baietza adierazteko, erabat mutututa gelditu bainintzen.

- Urrezkoa dela ematen du. Saldu eta dirutza emango didate trukean.

Eskua hartu nion nire susmoak egiaztatzeko. Berak irribarre egin zidan, etzekien zertan nenbilen eta. Baboa!

Nire susmoak, zoritxarrez, ez ziren okerrak. S.P. zegoen grabatuta eraztunean; Sergey Petrov, nire neba.

Barrutik sua nuen. Kabroi hura bertan akabatzeko gogo izugarria nuen. Baina lehenengo neba bizirik ote zegoen jakin behar nuen.

- Eta, zer egin zenion eraztunaren jabeari? Joaten utzi, ezta?



- Bai zera, jipoia merezi zuen tipo hark. Hesteak bota zituen ahotik, jaja. Nire kaletik ezin da nire baimenik gabe ibili.

Handik altxatu eta “lotara” joan nintzen. Plan ezin hobea egin nuen nire nebaren heriotza mendekatzeko.

Baina, zer bihurtu nintzen? hiltzaile? Sasikume hark ondo merezia zuen agian baina ezin nintzen bere mailara jaitsi. Zer pentsatuko zukeen aitak? Eta nebak? Ez. *Militsiyara* jo nuen laguntza eske. Edozein aitzakia nahikoa zen haientzako hainbeste gorroto zituzten “pegamentu-umeak” atxilotzeko. Sergey hil zutela kontatu nien. Egia zen, baina ez dut uste asko axola zaienik zer den egia eta zer ez.

Hogeita bi urte dauzkat orain. Egun, “pegamentu-ume”-ei laguntzeko, bizitza bat emateko, GKE baten buru naiz, ez dut berriro ikusi nuena ikusi nahi.

Sergey Ivánovich Petrov. 8 urte. Yaroslavl-eko tren geltokitik gertu aurkitua. Hiltzailea Andrey Yuriovich Pávlov. Biziarteko katera kondenatua lehen mailako hilketagatik.

Inoiz jakingo ez dudana nire ama zenaren (alkoholak akabatu baitzuen) mutil-lagunaren semea izango ote den Andrey...


Goian bego, Sergey.



Iñaki Barandika Gallastegi

Irabazlea 17-18 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Pagoaren gerizpean

Gogoan daukat 1936ko uztailaren 16an zegoen eguraldi ederra. Gelako leihoa ireki nuen eta ez zegoen aurreko gaueko galernaren arrastorik zeru urdinean. Beti bezala, kresalak nire arnasbideak bete ondoren, prest nengoen egunari aurre egiteko. Hamalau urteko mutikoa baino ez nintzen eta nire herria zen nire mundua. Alkandora gogokoena jantzita sukaldera hurbiltzen hasi nintzen; bidean, nabaritzen zen esne egosi berriaren usaina. Sukaldean amona zegoen, irratia belarri ondoan zuela, telenobela entzun nahian. Amonak egiten zituen etxeko lanak ama portuko enkarguak egiten zebilenean eta aita beti bezala arrantzan zebilen itsaso zabalean. Nik ere betebeharrak nituen etxean, hamalau urte nituen baina amonak esaten zuen bezala ni nintzen etxeko gizona aita ez zegoenean. Esne egosi berria hartu nuen herenegungo ogiekin egindako sopekin. Sukaldeko apalen ondoan itsasontzi baten argazkia zegoen eskegita. Goizero begiratzen nuen argazki hura eta gaur egun ere etxeko liburutegian ipinita daukat. Betidanik izan nahi nuen marinel. Gogo-bizia nuen nire mundua zen herri hartatik irteteko eta nire ikuspegia irekitzeko. Txikitatik itsasoa zen niretzako irtenbide errazena, inguruan mendiak baino ez nituen eta. Katilua ondo miazkatuta prest nengoen eskolara bidean jartzeko. Amonari musu bat eman nion eta berak irribarre eder batekin eskertu zidan. Eskola herriaren goialdean zegoen, bakarti. Inguruan zuhaitzak baino ez zituen. Aldatz batek lotzen zituen herria eta eskola eta bertatik igo egin behar izaten nuen ikasteko edota eskolako frontoian pilotan egiteko. Gogoko nuen bertatik igotzea eta beti bide erdian geratzeko ohitura nuen ikuspegiak gozatzeko. Hiru kolore ziren nagusi: basoaren berdea, itsasoaren urdina eta teilatuen gorria. Teilatuen artean kanpandorra zen nagusi. Bere erlojuari esker herrikoak

puntualki heltzen ginen mezetara. Baina deigarriena itsasoaren gaineko muinoan zegoen jauregia zen, bere lorategi eta guzti. Amonak askotan kontatu zidan Madrileko familia batena zela eta bera txikia zenean etortzen zirela uda pasatzera. Badira urte asko inork ez zituela jauregi hartako leihoak irekitzen, ezta bertako hesiari pintura ematen ere. Txikitatik bertatik pasatzen nintzen bakoitzean irudimena martxan jartzen nuen. Izugarritzko gogoia izaten nuen bertara sartzeko edo bertan bizi izan zen norbait ezagutzeko. Maisuak eskolako kanpaia jotzeari ekin zion eta nire lainotik jaitsi nintzen geratzen zitzaidan bidea bukatu ahal izateko.

Hurrengo goizean, beti bezala, jaiki orduko leihoa ireki nuen baina zerbait desberdina nabaritzen zen giroan, ez zegoen inor portuan eta zerua ilun zegoen. Beti bezala jantzi eta sukaldera hurbildu nintzen baina oraingoan ez zegoen esne egosiaren usainik. Sukaldera heldu eta bertan zeuden nire ama eta amona irratitari erne. Sartzen entzun nindutenean ama begira geratu zitzaidan, oso begirada urduria zeukan. Amak esan zidan gerran geundela eta Madril bonbardatzen hasi zirela. Gerra? Esan nion nire buruari. Nik ez nuen ondo ulertzen baina irratian esaten zuten jeneral batzuk errepublikaren kontra altxatu ziren. Nire mundutik kanpo zegoen zerbaitek urduri jartzen ninduen eta gertaera honek sentimendu hori piztu zidan. Egun horretan ez nintzen eskolara joan eta etxean geratu ginen denok irratitari adi.

Biharamunean eguna beti bezala hasi zen, dena berera bueltatu zen. Zeru urdina, esne egosiaren usaina... Aita itsasotik bueltatu zen eta udaletxera joan zen beste herriko gizonekin bizi genuen egoerari buruz informazio gehiago jasotzera. Sukaldean irratia baino ez zen entzuten. Denak zeuden isilik, ez nuen gogoko egoera hura. Gosaldu eta amonari eta amari eman nien musu. Etxetik eskolara bidean, beti bezala, aldatzaren erdian geratu nintzen. Betiko ikuspegia, betiko teilak, baina oraingoan zerbait desberdina nabaritzen zen. Jauregian mugimendua zegoen, leiho guztiak irekita zeuden eta aurreko aldean bi auto dotore zeuden aparkatuta. Eskolan nintzela, goiz hartan ikusitakoa baino ez nuen buruan eta gogo bizia sentitzen nuen bertara hurbiltzeko. Eguerdian, etxera bueltan, amonari esan nion goizean ikusitakoa. Amonak berak ere entzun zuela zerbait merkatuan esan zidan. Zirudienez Madrileko familia etorri zen gerra atzean utzi nahirik.

Guztira hiru ziren, gurasoak eta alaba. Hura zirrara sentitu nuena, azkenean bazegoen norbait jauregian bizitzen. Gau hartan nire gelako leihotik jauregira begira egon nintzen luzaroan. Leiho guztiak argituta zeuden eta mugimendua nabaria zen barruan. Gau hartan jauregiak itsasargi bat zirudien dena argiz beterik, herrian bi itsasargi genituen orain. Gauerdian ohera sartu nintzen eta lo hartu nuen segituan.

Amak portuan egiten zuen lan enkarguak prestatzen eta eramaten. Lanez lepo zegoenean nik laguntzen nion. Larunbata zen goiz batean amak laguntzeko eskatu zidan, Jauregira enkargu bat eramateko. Bi legatz eta lau zapo eramane behar nituen. Jada hilabete batzuk pasatu ziren Madrildarrak heldu zirenetik eta orbelek herriko plaza estaltzen zuten. Azkenean jakingo nuen nortzuk ziren bertako ugazabak eta nolakoa zen barrutik. Nire mundua gehiago irekiko zen baina gogoko nuen momentu horretan irekitzea prest nengoen bizipen horri aurre egiteko.

Jauregiko zerbitzarien ateko txirrinoa jo nuen, eta emakume batek ireki zidan. Emakumeak uniforme zeraman gainean eta oso adeitsu portatu zen nirekin. Enkargua eman nion eta barrura pasatzeko esan zidan, gozoki bat emango zidala eta. Sukaldera eramane ninduen eta momentu bat itxaroteko eskatu zidan. Sukalde ederra zen, oso ondo antolatuta zegoen. Sukaldea begiratzen nengoela neska bat sartu zen ezker aldeko atetik eta begira geratu zitzaidan. Neska polita zen eta nire adin berbera zuela iruditu zitzaidan. Ez dakit zergatik jarri nintzen urduri eta izerdika. Neskak irribarre bat egin eta besotik heldu zidan lorategiraino eramanez. Bidean bere barrea eta nire urduritasuna ziren nagusi eta pagoa baten gerizpean geratu ginen. Begira geratu zitzaidan, nik ez nekien nora begiratu eta azkenean bere oinetara begira geratu nintzen burua makurturik. Burua altxatu zidan eskuarekin, bere aurpegiaren pare jarri arte. Eta Maria deitzen zela esan zidan. Begi urdinak zituen. Ez nengoen urduri jada eta hitz egiteari ekin nion.

Pagoaren azpian hitz egin genuen denbora luzez. Maria ni baino urtebete gazteagoa zen, bere jakinduria aldiz zabala zen. Munduan zehar bidaia asko egin zen eta hiru hizkuntza hitz egiten zituen. Luzaroan egon ginen bertan hitz egiten eta gure hitzen artean itsasoaren doinua zen nagusi. Une hartatik aurrera Maria eta biok lagun onak bihurtu ginen. Maria oso neska alaia

eta irribarretsua zen. Orduko hura ez zen biok elkarrekin egon ginen aldi bakarra izan, askotan geratzen ginen hitz egiteko eta elkarrekin egoteko.

Denborak aurrera egin ahala eta zuhaitzek hostoak berreskuratu ahala, sentipen batzuk hasi ziren nire bihotza inguratzen. Oso nahastuta nengoen, maitemintzen hasi nintzen. Udaberri hasierako egun hartan goiz jaiki nintzen eta leihoa ireki nuen. Eguzkia itsasoan islatzen zen eta itsasontziak portura sartzen ari ziren. Mariarekin geratu nintzen egun pasa joateko. Urduri nengoen, behingoz, nire sentimenduak azaldu behar nizkiolako. Bai, prest nengoen asko maite nuela esateko eta nire bihotzeko atea irekitzen bera izan zela lehena aitortzeko. Kolonia potea ondo hustu ondoren, eta azken begiratua ispiluan emanda, kalera irten nintzen. Mariarekin eskola atzeko mendira igotzeko geratu nintzen. Horretarako eskolako frontoian elkartzea erabaki genuen eta bertara goiz heldu nintzen. Ez neukan zer eginik eta nire maitearentzako lore sorta bat batzea erabaki nuen. Margarita zen nagusi bertako larreetan eta sorta eder bat bildu ondoren frontoira bueltatu nintzen: han zegoen Maria. Zorionak nire gorputza hartu zuen eta irribarrea zabaldu zen nire aurpegian. Berarengana hurbildu eta masailan musu bat eman ondoren, oparia eman nion. Mariak diru asko izan arren gauza arruntak zituen gogoko eta egun hartan nire lore sortak izugarritzko ilusioa egin zion.


Mendira heldu ginen. Ikuspegi ezin ederragoa bistaratu genuen, gure esfortzu handiaren ordainsari moduan. Leku ona topatu eta bertan prestatu genuen dena hamaiketarako. Mariak ogitartekoak eta gaseosa ekarri zituen etxetik, eta nik amak prestatutako gatzatu gozo-gozoa. Behingoz nire sentimenduak erakutsi behar nizkion Mariari eta pausoa eman nuen. Maria asko maite zaitut. Segundo batzuetako isilunearen ondoren Mariak besarkada handi bat eman zidan eta berak ere asko maite ninduela onartu zidan. Orduan jakin nuen berak ere sentimendu berberak zituela eta ordutik aurrera neska laguna izan nuen, nire lehen neska laguna. Denbora luzea eman genuen bertan pasaiaz eta bata besteaz gozatzen eta, noski, askaria ere jan genuen. Berandutzen hasi zen eta etxera bueltatzen hastea erabaki genuen. Bidean eskutik batuta joan ginen eta momentu hartantxe munduko pertsonarik zorionsuena nintzen. Frontoira heltzean Mariak musu bat eman

zidan ezpainetan eta bere irribarrearekin jauregirako bidea hartu zuen. Hura izan zen nire lehen musua, inoiz eman didaten goxoena. Pozaren pozez, aldatza saltoka jaitsi nuen. Eguzkiak ere etxerako bidea hartu zuela ikusi nuen eta den dena kolore laranja batekin argitzen zuela.

Urte horretan egunero izaten genuen unetxo bat elkarrekin egoteko. Gure maitasuna gero eta sakonagoa zen. Gerra gero eta hurbilago genuen baina guri ez zitzaigun axola gure lainoan bizi ginelako. Egun batean hondartzara joaten ginen bestean mendira edota bere lorategiko pagoaren gerizpera. Arratsalde batean hondartzako txoko batean geundela Mariaren eskua hartu nuen eta bertan pultsera bat jarri nion, nire Jaunartzekoa zen. Horrela bere maitasuna nirea izango zela betiko ziurtatu nahi nuen. Mariak asko eskertu zidan. Banekien etxean amonak galdetuko zidala zergatik ez neraman jarrita pultsera eta buruari eragin nion aitzaki baten bila. Azkenean esan nion hondartzan galdu nuela uretan nenbilenean. Hura disgustua eman niona eta egun batzutan ez zidan hitz egin. Nik banekien esku onetan zegoela eta egunen baten egia esango niola amonari.

15 urte bete nituen otsailaren 9an eta aitak motor bat oparitu zidan, Vespa bat. Bigarren eskukoa zen baina ez zitzaidan axola, eta ondo garbitu ondoren prest zegoen martxan jartzeko. Ez neukan lekurik etxean uzteko eta kofradiako lonjan uzten nuen arrain kaxa batzuen artean. Mariari sorpresa bat eman nahi nion eta bidaia bat antolatzea erabaki nuen. Kostaldeko bidetik Donostiarako bidaia izango zen eta gutxi gorabehera ordubete beharko nuen Maria bertara eramateko. Lehenik eta behin, motorreko depositua bete nuen portuko surtidorean eta, ondoren, diru pixka bat eskatu nion amari Donostian zerbait erosteko. Ez nion esan Mariarekin joan behar nintzela, ez nuen eta etxean inork jakiterik nahi. Lagunek ere ez zekiten ezer Mariari eta gure maitasunari buruz, eta eskolan baino ez nituen ikusten.

Hurrengo goizean logelako leihoa ireki nuen beti bezala. Egun ederra zegoen. Presaka jantzi eta gosalduta ondoren kofradiako lonjara hurbildu nintzen. Portuan arrantzaleen emazteak ari ziren eguneko arrain freskoa saltzen, eta inguruan zebilen nire ama ere. Lonjan sartu eta motorra hartu nuen. Martxan jarri eta portuan zehar jauregira hurbiltzen hasi nintzen Bertan zegoen Maria hesiko atean zain. Ikusi ninduenean sorpresa



aurpegia jarri eta barre egin zuen. Bere aurrean nengoenean, balazta zapaldu eta igotzeko keinua egin nion. Atzean eseri zen nire gerria ondo besarkatuz. Bideari ekin genion kostaldeko ikuspegiak gozatuz. Mariaren besoek gerria inguratzen zidaten: hura sentazioa ederra! Batzuetan belarrira hitz egiten zidan eta baita musuak ematen masailean.

Donostiara heldu ginen, gure helmugara. Motorra tren geltokiaren ondoan aparkatu nuen. Donostian jendea alde batetik bestera zebilen presaka. Eskutik helduta Kontxako badiara hurbildu ginen, eta bidean izozki bat erostea erabaki genuen. Nik natazkoa hartu nuen eta Mariak marrubizkoa. Dendatik atera eta Kontxako badiako banku baten eserita, pasaiari begira geratu ginen. Hondartzan jende asko zegoen egunaz gozaten. Uretan sartzeko gogoia ematen zuen. Bertan geundela pasaia begiratzeko, sirena batzuk hasi ziren entzuten. Ez nekien zer esan nahi zuen zarata horrek eta bat-batean jendea presaka hasi zen dendetara edota portaletara sartzen. Mariak bazekien zer egin eta bertatik joan behar ginela esan zidan. Hegazkinak omen zetozen, eta kafetegi batean sartu ginen, eta leihotatik zerura begira jarri ginen. Ez zen ezer ageri zeru urdinean. Ordu erdi bat pasatu ondoren jendea kalera irteten hasi zen berriro ere, eta dena lehengora bueltatu zen. Sustoa baino ez zen izan. Oraindik goizeko hamaikak baino ez ziren, baina Maria urduri jarri zen: Madrilen jasan zuena gogorazten zion, eta horregatik eskatu zidan berriro etxera bueltatzeko. Ez neukan berriz motorra gidatzeko gogorik, nerbioengatik agian, eta horregatik trenean bueltatzea erabaki genuen. Motorra atzealdean sartu nuen, gari zakuen artean, eta trenak bere bideari ekin zion. Egurrezko bankuetan eseri ginen leihotik begira. Trenak bi ordu behar izan zituen herriko geltokira heltzeko eta bertan jaitsi ginen biok, baita motorra ere. Maria urduri sumatzen nuen eta etxeraino lagundu nion horrela ni ere lasaiago egongo nintzelakoan.

Lehen aldia zen horrelako egoera bat jasaten nuela. Gure herrian ez zegoen ez sirenarik ezta beste holako ezer ere. Donostian jazotakoak gogorazi zidan gerran geundela. Gau hartan bero egiten zuen eta ezin nuen lorik egin. Leioa ireki eta jauregira begira geratu nintzen. Argi guztiak zeuden piztuta, berandu zen baina dirudienek oraindik jaikita zebiltzan.

Goizeko zazpiak ziren begiak ireki nituenean. Erlojuari begirada eman ondoren leihoa ireki nuen. Eguna polito zetorren eta zeruan laino zuri batzuk zeuden. Oraindik ez zuen eguna guztiz argitu eta jauregira begira jarri nintzen. Sukaldean nengoela aita sartu zen. Eskuan Euzkadi egunkaria zekarren eta bertan, letra handiekin, “Gernika bombardeada” jartzen zuen. Amonak hura ikusi zuenean bere lepoko arrosarioa esku artean hartu eta zerbait esan zuen ahopeka. Ez nion ondo ulertu. Egunkariak hegazkinek Gernika bonbardatu zutela jartzen zuen, eta den dena suntsituta geratu zela. Hildakoak ere ugariak izan ziren. Beraz, dagoeneko gainean genuen gerra. Nire mundua guztiz ireki zen eta herria txiki geratu zitzaidan. Ama ere sukaldera sartu zen eta irratia piztu zuen, guztiok bere inguruan eseri ginen zerbait gehiago jakiteko gogoarekin.

Eserita geundela aitak esan zigun Euskal gobernuako ordezkariak etorri zirela laguntza bila eta berak bere burua eskaini zuela frentean laguntzeko. Inork ez genion ezer esan ados geundelako berarekin.

Aitari geltokira lagundu genion etxeko guztiok; bertan herriko gizon gehienak zeuden frentera joateko prest. Guztiok agurtu genuen aita. Besarkada eta musu batekin agurtu nuen nik eta trenera igo zen. Berrito ikusiko ote nuen galdetu nion nire buruari. Trenak bozina jo zuen eta martxan jarri zen, aitak eskuarekin agurtu gintuen leihotik. Hirurok etxera bueltatu ginen urduri eta beldurturik. Gogoan daukat, oraindik ere, egun



hartan etxean jan genuen bakailaoaren zaporea. Bezperan amonak prestatukoa zen, bere piper eta guzti. Bazkaldu ondoren Mariaren bila joatea pentsatu nuen. Berarekin egon nahi nuen etxean jazotakoak kontatzeko.

Jauregira hurbildu nintzen eta ate nagusiko txirrina jo nuen. Behin, bitan, hirutan... baina ez zidan inork atea irekitzen. Ez zen normala inork ez erantzutea eta hesiko tarte batetik barrura sartu nintzen. Leiho guztiak zeuden itxita eta ez zegoen inor inguruan. Non zegoen Maria? Oso urduri jarri nintzen. Ez nekien nora joan bere bila, ez nekien zer egin. Herriko plazara hurbildu nintzen nora ezean bertan zerbait ikusiko ote nuenaren zain. Orduan ikusi nituen Mariaren bi auto dotoreak geltokiko sarreraren aurrean. Tximista bezala sartu nintzen geltokira. Tren oso luze bat zegoen, pasaiariz beteta era bat. Banan bana hasi nintzen bagoiak miatzen Mariaren bila, baina ez nuen inon ikusten. Etsita nengoen, Maria dagoeneko joanda zegoen. Kanpora nindoala norbait niri deika entzun nuen; bai Maria zen. Treneko laugarren bagoian zegoen leihotik nire arreta piztu nahian. Berarengana hurbildu nintzen. Maria Frantziara zihuan. Gerratik alde egin behar zuen bere familiarekin, azken egunetako bonbardaketek larritu egin zituzten-eta bere familiartekoak. Trenak bozina jo zuen. Laster hasiko zen martxan eta Mariak Frantziarako bidea hartuko zuen. Asko maite nuela esan nion eta Mariak bere eskuineko belarritakoa bota zidan leihotik behera. Orduan trena martxan jarri zen eta Mariak musu bat bota zidan bere eskuarekin. Nik musua jaso eta bihotzera eramane nuen. Trenak geltokia utzi zuen. Maria bazihoan, nire maitea joana zen dagoeneko. Geltokian makurtu nintzen eta bere belarritakoa hartu nuen esku artean ondo gordez.

Orain hemen nago etxeko balkoian itsasoari begira. Dagoeneko 85 urte ditut, zahartuta nago. Nire bilobak oparitu didan ordenagailuan idazten ari naiz nire lehen maitearekin bizi nituen esperientziak. Medikuek Alzheimer izeneko gaixotasuna diagnostikatu didate eta nire bizitza ahaztu baino lehen idatzi nahiko nuke geroago gogoratu ahal izateko. Bai, Maria izan zen nire lehen maitasuna eta ez dut nire bizitzan egun batean ere ahaztu, eta ez nuke nahiko inoiz ahaztea. Ez nuen bere berri gehiago izan, baina urte luzez segitu nuen bere lorategiko pagoko gerizpera joaten. Bertatik itsasoa begiratzen nuen eta azkenean marinel bihurtu nintzen eta



munduko itsasoak zeharkatu nituen. Nire aita ez zen etxera bueltatu eta orduan nik hartu nuen etxeko gizonaren papera. Geroago ezkondu egin nintzen eta seme alabak ere izan nituen eta ezetz asmatu nola daukan izena nire alabak? Hori da, Maria deitzen da. Gauero jauregira begiratzen dut ea berriro argiak piztuta dauden, baina momentuz itsasadar bakarra dago herrian. Zerbait falta zait istorio hau bukatzeko eta ordenagailuko memorian gordetzeko, nire memoria berria izango dena nirea galtzean. Orain gogoratu dut nire gelako bigarren apalean zerbait daukadala gordeta, Mariaren belarritakoa.



Alba Oleaga

Irabazlea 11-12 urteko sailean

Landako ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Itsasoa



Itsasoa ixil-ixilik
olatuen zain.
Zergatik ez datoz?
lo al daude?

Itsasoa ixil-ixilik
itsasontzien zain
Zergatik ez datoz?
haserretu ote dira?

Itsasoa ixil-ixilik
arrainen zain.
Zergatik ez datoz?
hilda ote daude?

Non ezkutatu ote dira gure itsasoaren lagunak?



Delfina Asteinza Castillo

Irabazlea 13-14 urteko sailean

San Antonio – Santa Rita ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Begiradak




Ni banku batean
nago eta zu nire
aurrean autobus
geltokian.

Zu niri begira eta ni,
lehen lasai eta orain
urduri. Nabaritzen
dut nola doan nire
odola zainetatik
eta nire bihotzaren
taupada arinak.
Ezin dut gehiago
jasan, banoa.

Geltokian ari gara
egunero elkar
ikusten. Gure
begiradak aurkitu
dira eta nabaritu dut
zure maitasuna
niregan, bihar
zuregana joango
naiz.

Baina, gaur ez
zaude eta ni tristura
handiz etxera joaten
naiz, lilura galduta
eta bihotza minduta.



Eneko Sagardoy Mugika

Irabazlea 15-16 urteko sailean

Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Akabo



Haizea dabil gora eta behera.
karrika beltzetan barrena.
Bart gaueko kiratsak lurrin,
erreka gorrikkak urrin.

Animalia basatia kantari,
ume gaixoa negarti,
emaztea beldurti,
gizonak zer ekarri.

Kolpeka etxera,
haitzulo beltzera.
Dardaraz itxaroan,
preso zure etxe propioan.

Azalaren kolorea,
nabarmen da aldatu.
Minez zaude,
malkoa masailetik behera duzu.

Umeak negarrez darrai,
ama garrasika, "ai!"
Lurrean etzanda, minez itota.
Laguntzarik gabe zaude, jota.

Gaueko kirats zikina sartu da etxera,
lurrindu zaitu goitik behera.
Bihotza eta indarrak irmo,
kemena batu eta egin duzu gora.

Badoa kiratsa, eta baita samina
arnasa entzuten zaizu sakona.
Haizeak ziplo bota dizkizu beldurrak zulora.
Bukatuko duzu honekin, bazoaz, nora?

Aiztoa hartu eta umearen negarra gailendu da
amaren negar zotinen gainetik.
Errekak itsaso bihurtu dira,
Itsaso gorri gorri.

Buruaz beste egin du,
aurreratu egin zaizu.
Lotsa izpirik ez,
eta orain bizitzarik ere ez.

Ama semeak malko jarioan diraute,
poz malkoak, nola ez.
Amaitu da dena,
errekak dira gizonarenak.



Nerea Aizpurua Iglesias

Irabazlea 17-18 urteko sailean

Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Begien Egia



*El ojo que ves no es
ojo porque tú lo veas,
es ojo porque te ve.*

Antonio Machado

So, begiratu.
Bizi jasandako zorigaitzak,
soilik begirada batean.

Begien kliska etengabeek,
xume diren xuxurletatik iheska
oroitzapenen preso.

Begia, bera, berdintasuna.
Ezberdintasuna, begirada.
Diferentzia, sentipena.

Betazal itxiak sentipenen jabe.
Ireki beharra, sentitu nahia.
Ez egin keinu, ulertezina baitzara.
Izatea, biak dira bizirauteko.

Malkoak, etsipenaren arrastoak;
begiak baimenik ez,
ihes egiten duen negar tanta.

Bat bateko ihesaldiak
ildo sakona utzita,
oinazea nagusi.

Barraskilo baten lez,
begien pixkanakako aienak
errealitatea saihestuz,
oskolean babestu.

Sentimen guztiak bakarrera mugatu,
ikusmena murriztu.
Muga horretan, bizitzaren gakoa.

Begiak, barnearen gidari,
bi argien antzera argitu.
Amatatzean, ezerezean.

Begiak adierazpen bide.
izuen konponbide ezean,
hobe itzali.

Paumak ehunka begi.
Deigarri izan nahian,
hamaika begiekin erakartzen du.
Zuk birekin.

Itxi begiak:
istorio berri baten hasiera ikusiko duzu.



Jon Ander Urkiaga Egidazu

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Herdoilarenak



-1-

Leiho zabalduetan
idatzi ziren azken konpasak
esekitokietan
pintzek eutsitako notak
tangoak eta baltsak
arin-arinak eta jotak.

Leiho irekian
gatzazkio ahultasunari
laugarren zenbakian
gauero
errotutako sustraiari
bisitan joaterik balego.

Leihoak irekitzean
ez ahaztu bertan litezkeela
hitzean edo hitsean
samina eta atsegina
ezagun bagenitu bezala
ezagutu gabe, baina.

Leioha zabaldu eta
usnatu bestaldera
itsutasuna epeka
ordaintzen bada ere
mutua inoiz ez da
isiluneen errege.

Leioha ireki eta arnastu
besterik ez bada, haizea
izenaren izana ahaztu
zama gabeko ibilera
izerdi heze ezaren asean
itaun ooren erantzun bera.

-2-

Ez dadila izan
azken afaria,
baizik, azken aurrekoa.

Ez dezala
argitu egunak
berriro gau izan arte.

Ez dezagun deus sal,
sal gaitezen gu geu
bekatu merkeen truke.

Ez gaitzatela epaitu
zoroaldiaren
gailurrean gaudelarik.

Eta ez gaitzazu
bihar arte deitu:
bestondoko greban gaude.

-3-

Gure munduek dituzten zabaleren
neurriak zizelkatuko ditugu hodeietan.
Tip-tip; tip; tip-tip-tip-tip; ...
eta zenbaitzuek morse-kodearekin
konfundituko badute ere
ez dugu haientzako klabe sekretuko mezurik,
soilik gure munduek dituzten zabaleren
neurriak zizelkatzen dihardugulako hodeietan.
Tip-tip; tip; tip-tip-tip-tip.



-4-

Ezin izango du inork zirimiriaren ziri-miri doinua isilarazi.

dabilen harriari ez baitzaio goroldiorik itsasten, eta harria biraka hasi da.



Iker Mendiola Garai

Irabazlea 11-12 urteko sailean
San Antonio – Santa Rita ikastetxea





Bertso bat nola bota

Bertso bat botatzeko
lenengo fasea
bertsolari bakoitzak
burua aurkeztea
ideiak eta hitzak
naste-borrastea
ez da gauza erreza
ordenan jartzea

Behin prestatu ta gero
dator hasiera
demonstre puru hori
utzi alde batera
bertso ederrak bota
Egañan antzera
ta dedikatu zaitez
adarra jotzera

Nahi ba duzu txapela
zuk zeuk irabazi
behar izango duzu
hizkuntza ondo ikasi
lan gogorra daukazu
lehenbailehen hasi
txapela irabaztean
txalo ta garrasi



Igor Uruburu Martinez

Irabazlea 13-14 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Gaztearen bizitza



Niri txikitan esan zidaten
“ez aspertu, ondo pasa!
gozatu zure bizi aro hau,
joan zaitez plazaz plaza”
nerabezaro nazkagarri hau
nagusientzat jolasa
baina niretzat eguneroko
bizitza ez da erraza

Astelehenean goiz esnatuta
joaten naiz eskolara
sei ordu gela baten barruan
agoantatu behar hara!
hamar minutu pasa orduko
zigortuta nago jada
baina oraindik ez dut amaitu
hau soilik hasiera da

Ia seietan zigor ostean
joan behar naiz etxera
motxilak pisu asko du eta
zabaldutut kremlera:
gizarte, mate, natur zientziak
english, français eta euskera
arratsaldea lanak egiten
pasatu behar gainera!

Bertso sorta hau gogoz kontrara
egin dut, sututa eta
lana, ikasi, esfortzu asko,
nago benetan erreta
mareatuta, logurarekin
izerdiz blai dut kopeta
nire bizitzak jarraituko du
momentu txarrez beteta



Ander Sagardoy Mugika

Akzesita 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Esperantzaren bidaia



Jaioterritik urruntzen dira
bizitza "onaren" bila.
Urrutiko lurrak etorkizun,
ametsak mila ta mila.
Txalupatxoa euren euskarri,
salbamendutzat dutela.
Gosea eta beroa etsai,
bizitza dutela ia hila.

Irribarre zabal bat jartzen zaie
lur berria ikustean.
Batzuk negar zotinka dabilta,
hil zaie norbait bidean.
Burua argitu ezinik ta
zauritxoa bihotzean,
jende asko dago haiei zain
amaierara heltzean.

Medikuak daude prest portuan,
janaria denentzako!
Ura edanez ta ondo janez,
denentzat lain betetzeko.
Hobeto sentitu ta ondoren,
gaizkileen antzerako,
daramatzate ziegetarantz
haien harridurarako.

Han ez zen haiek uste zutena,
esan zieten, "etxera!"

Ez zuten berriro bueltatu nahi,
irten nahi zuten kalera.
Hori ez zen ostera, horrela,
galdua euren aukera,
egun gutxiren buruan ziren
egiten bidai berbera.

Berriro ere bidai berdina,
Itsasontziz oraingoa.
Lehengoa bazen oso gogorra,
hau ez da samurragoa.
Nahiz eta osasunez hobeto,
utikan bizi gogoa.
Ametsik ez eukitzea baino zer da ba gogorragoa?



Garazi Sarrionandia del Hierro

Akzesita 17-18 urteko sailean
Ibaizabal Ikastola



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Kristal gardenak

Kristal gardenaz estalitako
bi orratz daude tik-tak-tik,
luzea doa arineketan
eta txikia atzetik.

Momentu onak eta lasaiak
pasatuz zailenetatik,
denbora doa aurrera eta
ez dugu atzera joaterik,
bizitzak jarri digun baldintza
ez dago menperatzerik.

Kristal gardenaz banatzen dira
lagunak eta gehiago,
ezin ikutu, ez muxukatu
sentiarazten nau arraro.
"Eup! Aspaldiko, zenbat denbora.
Zelan dena? Zelan hago?"
Bion arteko kristal gardenak
banatzen gaitu zeharo.
"Lasai, laztana, gure amodioa
nork apurtzerik ez dago."

Kristal gardenaz joka ari da
behin eta berriz txoria,
preso bailitzan begiratzen du
urrundik bere habia,
preso bailitzan begiratzen du
triste eginda euria,
preso bailitzan begiratzen du
poztasun handiz argia.
Askatu gabe preso izatea
ba ote da zilegia?

Kristal gardenaz ikus dezake
lehenak eta azkenak,
guztia argi dagoenean
kentzen dira gure penak.
Gauzatxo batek arduratzen nau
ta nahi ditut azalpenak,
egoera honek sortzen baititu
direnak eta ez direnak,
ez baitu inoiz ezer ikusten
ikusi nahi ez duenak.

Kristal gardenaz isladatzen da
neskatxen gorpu mindua.
Egun orotan izaten dute
janariarekin gudua,
pentsamendua eta arima
gorputzetik aldendua.
Gaur eguneko gizarte honetaz
hau da nire aburua:
moda zikinei jarraitzeagatik
galtzen gabiltza burua.

Kristal gardena apurtuz gero
geldituko zen denbora.
Guztia ahaztuz egingo nuke
salto bat zure ondora.
Txoria ere azkar badoa
hegaka bere txokora.
Ingurukoa lausotu eta
guztiak galdu ganora.
Barnekoagaz arduratuta
ahaz dezagun behingoz moda.



Jon Ander Urkiaga Egidazu

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



julene azpeitia lehiaketa • 2009 urtea



Luzea da gure lurra



Luzea da gure lurra
eta mingaina laburra
mama gozoz freskatuko
ote dugu inoiz zintzurra.
Eta mingaina laburra.

Aitorren hizkuntza zaharra
dago gaztetu beharra
zaharren egoitza delako
bestela patu bakarra.
Dago gaztetu beharra.

Hitz egiterik ez bada
hitz egiterik gura da?
Norbera ez ote dugu
norberarentzako traba.
Hitz egiterik gura da?

Bertze jendek uste zuten
inork ez ziela uzten
ta orain berriz gabiltza
gure usteetan husten.
Inork ez ziela uzten.

Plazara, euskara, plazara!
gaur feria eguna da
Merke saldu nahi zintuzket
iritsi orduko gaba.
Gaur feria eguna da.

Bai, eta bai, bai, eta bai
esan ezin ta izan nahi
Mutua izango al da
inoiz hitz egiteko gai?
Esan ezin ta izan nahi.

Haurrak ikasi ezazue
eta nahi ez baduzue
hezkuntza sistemarekin
derrigortuko zaizue.
Eta nahi ez baduzue.

Utzi alferriko jarduna
Izan erantzukizuna
Gure esku dagoelako
Euskal Herri euskalduna.
Izan erantzukizuna.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento